



Su-eten agiria: Bruselako eta Gernikako eskaerak bete ditu ETAk

SAGARDOA

Bertako sagarraren alde egiteko ordua



Posterra
opari



- **Guraso ekimena Gasteizen**

Haurrak euskaraz egiteko parkean biltzen hasi dira

- **Josu Abrisketa:** «Burgosko prozesuan geundenok eta egun borrokan ari direnek arrazoi berdinak ditugu»

- **Literatura** Pantailarako pentsatutako testu esperimentalak ugaritu dira

- **Luke Uribe-Etxebarria, EAJ:** «Euskadirentzat ona dena, Patxi Lopezentzat kaltegarria bada, PSEk arazo larria dauka»



Edukiz jantziko zaituen aldizkaria

Oparitu **argia** harpidetza

independentzia astero ikusten da



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskulna. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko urtarrilaren 16a, 2.260. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Ane Muñoz:** «Ez dago alardea baino zinematografikoagorik». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Sagardoa.** Hemengo sagarraren alde lanean. IRATI SARASUA / 5

Pertsonaia

- **Josu Abrisketa:** «Burgos aurre eta Burgos oste bat dago gure borrokaren historian». MIEL A. ELUSTONDO / 10

Gaiak

- **Negozioak online.** Ukitzerik ez dagoena, kontatu. JON TORNER / 15

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Gezurrrik faltsuena. ANA URKIZA / 21
- **Kultur Bonoa** eta merkatuaren legea. JOXEMARI CARRERE ZABALA / 22
- **Txandan** Beldurrik gabe. CASTILLO SUAREZ / 22
- **Agdeim** Izik eta Facebook. ROSA MARIA MARTIN SABARIS / 23
- **Hiruko txikian** Ke arteko. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Zirtak** PATXI ZUBIZARRETA / 25
- **Bertso berriak** Bizi artean hil. AITOR ALBISTUR / 26

Erdiko kaiera

- **Ziberletretan** dena dago esateke. GORKA BEREZIARTUA / 27
- **Axa Mixa:** umeak uhinetako izar. ÁLVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN / 30
- **Liburuak** ARITZ GALARRAGA / 32
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 33
- **Ezpalak** JON TORNER / 34 • **Abarrak** JON TORNER / 35
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 36
- **Osasuna** JABIER AGIRRE / 38
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 39
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

Termometroa

- **Luke Uribe-Etxebarria:** «ETA oker dago gatazka politikoa ahaztuko dugula uste badu, EAJk ez du ahaztuko». MIKEL ASURMENDI / 41
- **Gasteizko haurrak.** Parkean elkartuko gara euskaraz aritzeko. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** 'Fracking' gasa dator, erregai fosil zikin eta suntsitzailea. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Etorkinak** eta joakinak. IÑAKI MENDIGUREN / 50



“Ez dago alardea baino zinematografikoagorik”

Ane Muñoz | Laburgile porrokatua

... 3, 2, 1... Grabatzen!

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Nori inporta zaio zinea?

Niri, nostalgikoei, bere desagertzea ekiditen ari direnei, jaialdien inguruko faunari, banatzaileei... Hortik aurrera ez dago zinezalerik, pelikulazaleak baino ez daude.

Egungo zine aretoek Oteizaren hutsunearen apologia dirudite!

Karteleran dagoena irentsi behar dut zinezalea naizelako? Zergatik betetzen dira areto guztiak Zinemaldian? Noiztik inporta zaizkigu hainbeste jatorrizko bertsoak? Zinemaldian egotea zinezalea izatea da?

Zinearen esentzia film laburretan dago, Youtuben alegia.

Youtuben dagoen oro ez da, eta den oro ez dago Youtuben. Lehen egunkarietako kronikak komentatzen ziren gisan komentatzen dira orain Youtubeko bideoak. Baina kontuz, Interneten izan nahi duguna gara, ez zinez garena.

Inozoa ni, Interneten talentu bila nenbilena.

Egindakoa derrigorrez saldu behar denean non gelditzen da talentua? Askotan talenturik ez dago, batzuetan ez da erabiltzen, baina talentua ez da sekula beharrezkoa izan pelikula bat egiteko.

Are inozoagoa ni; zinea ez al zen zazpigarren artea?

Talentua eta errodatzeko aukerak ez doaz beti batera. *Public relation* eta gibel handi mordoa dabil zinea egiten, eta talentudun asko ezin eginez. Filosofia bat daukanak irentsi

behar izaten du, eta dena irensteko prest dagoenak ez dauka filosofiarik.

Kimuak da Euskal Herriko film laburren filosofia.

Zure letxuga saldu eta banatzeko ardura hartzen du Kimuak-ek. Hori da zure laburrak izan dezakeen saririk onena. Baina ez dute sekula nire lanik hautatu, eta nire laburrak nik mugitu eta amortizatu behar izan ditut. Bada-kizu, kimuak eta azken tximuak daude!

Ez zizuten “emakumezko euskal zinegilea” zirela esan?

Ni zinegilea naiz! Bai, emakume euskalduna naiz, baina gizonezkoa eta mongoliarra banintz ere zinegilea nintzateke, ez gizonezko zinegile mongoliarra. Lanean ari naizenean ez naiz nire genero eta jatorriaz kontziente. Nortasunean integratuta dauzkat eta kito.

Kazetariok ere nortasunean integratuta daukagu film laburretan dabilenari “noizko lehen luzea?” galdetzea.

Zergatik ez didazue galdetzen zer kontatu nahi izan dudana pertsonaia bat hemendik hara mugiaraziz? Ez dakizue film labur batek ez duela zerikusirik luze batekin? Noiz ulertuko duzue laburrak ez direla aurkezpen txartelak?

Alardeari buruzko tajuzko lan bat egiten duzue nean!

Ez dago alardea baino zinematografikoagorik. Gertatu eta gertatzen ari dena hain da surrealista... Denborak egiari arrazoia ematen diotenean, pelikula eraginkorragoa izango da. ■

Sagardoa

Hemengo sagarraren alde lanean

Sagardo sagarraren %100 Euskal Herrikoa izatea. Urte gutxitan lortu beharreko helburua da hemengo sagardogile gehienentzat. Batzuen ekoizpen eta salmenta ereduak, ordea, zailtasunak dituzte horra iristeko, datuek argi uzten dutenez.

IRATI SARASUA

Argazkiak: Dani Blanco



SAGARDO SAGARRAREN jatorriari buruzko eztabaida pil-pilean dago: hemengo sagarra baino ez dute erabiltzen batzuek, baina Euskal Herriko ekoizpen kopururako nahikoa ez dagoela ere dio hainbatek eta kanpotik ekartzen dute sagarra. Jose Antonio Zamalloa Bizkaiko Sagardogile Elkarteko lehendakaria lehenengo multzoan sar dezakegu. Hamabost urte daramatza Zornotzako Uxarte sagardo-

tegiaren buru eta urte horietan guztietan Euskal Herriko sagarrarekin egin du sagardoa. Beste sagardotegi batzuek ez dute beren helburuak betetzeko adina sagar eta Asturias, Galizia, Frantzia eta Europa erdialdetik ekartzen dute, besteak beste. Adituek diotenez, gune horietan daude Euskal Herriko sagarraren antz handiena dutenak. Napoleon Lertxundi da sagarra kanpotik ekartzen dutene-



“Ekoizle handiak prezioagatik joaten dira kanpora sagar bila, merkeagoa delako, ez produkzio eskasiagatik. Azken urteetan hemengo sagarra jaso gabe utzi izan da”

JOSE ANTONIO ZAMALLOA, SAGARDOGILEA

takoa. Usurbilgo Saizar sagardotegiaren ordezkari da, eta urtean egiten dituen 1.600.000 sagardo litrotik, hemengo sagarren uzta paregabea den urtean, %30 lortzen du bertakoarekin egitea.

Antza denez, arazoa pixkanaka handituz doa: sagasti nahikorik ez izateaz gain, lehenagotik zeudenak alde batera uzten ari dira baserritarrak, nahi adina etekin lortzen ez dutelako. Egoera hori saihestu ahal izateko, sagardotegietako buruek eta erakundeek esku hartu behar dute. Zamalloak dio ekoizle handiak prezioagatik joaten direla kanpora sagar bila, atzerrian merkeago eros dezaketelako, eta ez produkzio eskasiagatik: “Egia da hemen beharrik asetzeko adina sagar ez dagoela, baina

baita azken urteetan hemengo sagarra jaso gabe utzi izan dela ere, merkeagoa delako kanpotik ekartzea”. Sagarraren produkzio eskasia bada oztopoa, aurrera egiteko bideak ireki behar direla azpimarratu du, baserritarrek lortzen duten etekina handituz gero, agian produkzioa handitzea lortuko lukete. Ideia hori izan zuten Asturiasen, eta hango baserritarrei sagar tonako irabazia igo zieten.



Bizkaiak nagusiki sagardo ekoizpen ez oso handia du eredu, horrek ahalbidetzen du bertako lehengaiaren erabilera bermatzea. Eta bermatzea, halaber, beste lurraldeetako sagardoarekiko bereizten dituen ezaugarriak izango dituela. Gipuzkoan, sagardo ekoizpena handiagoa izanik, atzerriara jotzen dute hainbatek. Produkzio ereduak da gakoa, azken finean, eta sagastiak izatearen errentagarritasun falta.

Zamalloaren ustez duela urte batzuk sagar eskasiari aurre egiteko pauso sendoak eman ordez, onartezina den puntu honetara heltzea ahalbidetu zuten erakundeek. Hemengo sagarren ekoizpena bultzatze aldera, sagasti gehiago egiteko proiektuak dituzte esku artean Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako foru aldundiek. Aurten, Gipuzkoako erakun-

Oxangoiti

Hotel Jauregia

Gamarra kalea, 2
Lekeitio (Bizkaia)
94 465 05 55 / 659 393 928
www.oxangoiti.net





deek Villabonan sagasti bat sortzeko asmoa dute bertako barietateak lantzeko. Bizkaian sagarraren bi ikerketa egiten ari dira; batetik, Zallako sagastietan, eta bestetik, bodega soto esperimentaletan. Araban hainbat elkarterekin lanean ari dira Aramaion: sagar barietateak berreskuratzeko lan egiten dute han dituzten makinekin.

Bai Zamalloak eta bai Lertxundik sagardo naturalaren alde egin behar dela iritzi diote, sagardo “egoki, on eta desberdina”-ren alde. Euskal Herriak dituen lur heze eta negu hotzek ematen diote berezitasun hori. Horrela dela ziurtatzen dute irizpide tekniko eta profesionalek. Halere, Lertxundik ez dizkie kanpoko merkatuei ateak ixten, hasiera batean hemengoaren alde egiten badu ere: “Pertsonalki uste dut ez dagoela desberdintasun handirik, barietate ezberdinekoak izan arren, sagardo izaera duten munduko sagarren artean. Hemengoarekin ez da nahikoa eta sagardo izaera duen sagar gehiago behar dut, horregatik jo beharra daukat gertuko probintzietara edo urrutiagora”.

Sagardoa eta sagardotegiak euskal kultura-rekin lotu ditugu, eta horren ondorioz, kanpoko sagarra erabiltzen dela esatea tabu bilakatu da. Zamalloak ulertzen du sagardotegi handiek kanpotik sagarra ekartzeko beharra izatea, baina horren inguruan egia azaldu behar dela dio: “Ezin dugu hemengo sagarra dela esan benetan kanpoko denean, eta ezin diogu ‘bertako sagardo natural’ izena jarri Akitaniako sagarrarekin eginda dagoenean”. Azken urteetan sagarra %100 bertakoa izatera heltzeko urratsak egiten ari dira, proiektu publikoak daude abian helburu horrekin. Horretarako, lehenengo bertakoa zein den eta zenbat den argi azaldu behar da, eta ondoren, sektoreen artean lan bateratua egin, bertakoa indartzeko. Ziurtagiri bat beharrezkoa ikusten du, kaleratzen dena nongo sagarrez egina dagoen adierazteko.

“Uste dut ez dagoela desberdintasun handirik sagardo izaera duten munduko sagarren artean. Hemengoarekin ez da nahikoa eta kanpora jo beharra daukat”

NAPOLEON LERTXUNDI, SAGARDOGILEA

Egun, sagardoa egiteko erabiltzen den sagarraren %40-50 da hemengoa. Hamar urteren buruan, %90-100era heltzea espero dute sagardogileek, baina horretarako, erakunde publikoek, sagardo ekoizleek eta elkar-teeek bat egin beharko dute. Duela urte batzuk horrelako saiakeraren bat izan zen, baina ez zen aurrera atera hainbat taldek izan zuten jarrerara kontrajarrien ondorioz.

Euskal Herrikoaren berezitasunak

Klima eta lurra dela medio, euskal sagarra berezia da, produktu ona da eta ezaugarri paregabeak ditu sagardogileen ustetan. Sagarrak %60-70 arteko errendimendua ematen du, hau da, litro bat sagardo egiteko 1,5 kilo sagar behar da. Bertako sagarrak gaziak, mikatzak eta gezak dira. 50 sagar mota ingururekin lan egiten dute Euskal Herrian, eta dauden sagarrekin egin beharreko nahasketak zuzen eginez gero, sagardo ona ematen du.

Sagardoa egiteko moduak bilakaera bat izan du, kalitate handiagokoa lortzeko bidean. Baina egiteko era aldatu den arren oinarria bera da. Bereziki kontrol mekanismoak aldatu dira: duela hamar urte upeltegi teknikak ez zeuden oso landuak, esaterako. Gaur egun, zenbait laborategik aztertzen dute osasun baldintzak betetzen dituen eta nahasketak ondo egiten diren. Sagarrak ere bere garapena izan du, eta egungoak kalitate hobea du, sagarraren berezitasunak aztertu

● Sagardoa

eta hobeto ezagutzen direlako. Gainera, nahasketa batzuk egiten dira zenbait ezaugarri lortzeko, eta hori esperientziaren ondorioz ikasi dute. Izan ere, sagarrak berez dituen zenbait bereizgarri hainbat teknika erabiliz lor daitezke. Halere, egokiagoa da sagarraren berezko ezaugarriari eustea teknika horiek erabili behar izan gabe.

Sagardoak oso ezberdinak izan daitezke, eta hori osagarri ezberdinak nahastuz lortzen da. Sagardogile bakoitzak erabakitzen du zer erabili nahi duen sagardoa egiteko. Ondoren, teknikariek laborategietan aztertu egiten dute eta horren bidez izaten dute osagarrien berri.



Egun, sagardoa egiteko erabiltzen den sagarraren %40-50 da hemengoa. Hamar urteren buruan, %90-100era heltzea espero dute sagardogileek.



Produkzioak datutan

Euskal Herrian egiten den sagardo gehiena Gipuzkoakoa da —gainerako herrialde guztien batuta baino askoz gehiago—, baina Bizkaian eta Araban produkzioa handitzeko asmoa dute. Egun, lurralde guztietan bertako sagarra baino ez da erabiltzen, Gipuzkoan izan ezik.

Gipuzkoan, %30-40 izaten da bertakoaz egina, horretarako, hemengo sei edo zazpi milioi sagar kilo inguru erabiltzen dute. Gipuzkoako Sagardotegi Elkarteak 58 sagardotegik osatzen dute: batzuek bertako sagarrak gain kanpokoa ere erabiltzen dute, eta besteek, hemengoa soilik.

Bizkaian hamaika sagardotegi daude eta guztira 300.000 litro inguru egiten dituzte bertako 400 tona sagarrekin. Araban sagardotegi bakarra dago eta sagardoa botilatan saltzen duen bodega bat. Arabako sagarrak baldintza egokiak ditu, eta historian zehar sagardo ekoizle garrantzitsua izan da; azken urteetan, ordea, behera egin du nabarmen. Aurten 200.000-250.000 litro inguru egin dituzte, baina datorren urteetan produkzioa handitzeko esperantza dute.

Nafarroan 300.000 litro ekoizten dira denera. Elkarte bat dago, bost sagardotegik osatua. Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan 200.000-250.000 litro artekoa da ekoizpena, orokorrean komertzializaziora bideratua. Sagardoaz gain, zukua eta muztioa ere egiten da Iparraldeko sagardotegietan.

Kalitateari dagokionez, orain arte taldeek ezarritako arauak jarraituz eta datatzeak eginez bermatu izan dute kalitatea. Baina hila-bete gutxiren buruan, Eusko Label ziurtagi-

Bizkaia nagusi!

Oztopo eta zailtasun artean abiatu zena zankalatraba, estropezu, sator-lan, espioitza bideetatik sartu zuten, azpi-jan eta elkarri lurra kentzetik segi eta makina bat taktika aldaketen ondoren liskar epelak eta borroka hotzila alde batera utzi eta guda piztu da. Piztu eta lehertu da. Eta Bizkaia nagusi eta ni pozik.

Sagardoaren panoramaz ari naiz. Hobe esanda, sagardogileez ari naiz. Urteak dira hemengo sagardoarentzako label bat sortzearen aldeko lanak abiatu zirela. Administrazioak eta sagardogileak elkarri proposamenka aritu dira tira-biran, ezin aurrera jo.

Etabaidaren mamia label beraren izaera da. Label batek sagardoa babestu eta bere kalitatea bermatu behar du. Zein sagardo ordea? Hortxe dago koska.

Sasiaren adar guztiak azaldu ezinda, gatazka samur ulertzeko hona bi lubakien arteko tartea zein den: batzuk hemen egindako sagardoa sustatu nahi dute eta besteek hemengo sagarrarekin egindakoa.

Aldea ikaragarria da. Hemen egindako sagardoa jatorri ezezaguneko sagarrarekin egin ohi da eta bere sustapenak onuradun gutxi batzuk ditu: sagardotegiak soilik. Bertako sagarrarekin egindako sagardoa bultzatzeak, aldiz, onura barra-barra zabaltzen du: nekazariak, sagardotegiak, sagardozealeak, gure paisaia, gure identitatea, gure kultura, eta abar luze bat.

Labelaren oinarritzko ezaugarria administrazio publikoek sustatua izatea denez, etorkizuneko Sagardoaren Eusko Labelak zeinen alde egin behar duen ez dago zalantza izpirik: bertako sagarra erabili nahi dutenen alde, alegia. Aukera honen alde buru-belarri ari da Bizkaian sagardogintzari lotutako jende guztia: sagardotegiak, teknikariak eta baita Foru Aldundia bera ere. Hauekin batera ari da Gipuzkoako sagardogile mordo bat.

Gipuzkoan lehertu da, baina, guda. Edozein tokitatik ekarritako sagarraz sagardoa egiten jarraitu nahi duten hamalau sagardotegiko taldeak bere marka pribatu bat sortuko du. Hau da, beraiek ikuskatuko dute bere burua eta bere produktua. Nahi duten sagarrarekin, nahi duten sagardoa egingo dute eta kalitatezkoa dela beraiek esango dute.

Eta gipuzkoarra izaki, zalantza izpi bat sumatzen dut: ikuspegi publikoa, denon onura, bertako nekazaritza, ekonomia orokorrean, kultura eta identitatea zuzenean sustatzen duen bertako sagarrarekin egindako Sagardoaren Eusko Labelaren alde argi eta garbi azaldu beharrean jarrera epel samarra antzematen diot Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Nik zalantzarik ez dut. Bertako sagarra da etorkizunaren berme bakarra. Aspaldi hartua dute sagardotegiek sagardo estandar "edateko moduko" bat egiteko bidea eta horretan gu adina iaio den asko da munduan. Aurten Asturiasko sagardogile handienetako bat gure merkatua "kolonizatzer" dator. Bide hori oso motza da eta hortik gure sagardoa pikutara doa. Bertako sagarretik abiatzeak bermatuko du geroa: bertako sagarrak jaso eta jagotea, sagastietako teknikak berreskuratzea eta zabaltzea, nekazaritza suspertzea, dolareko eta upategiko lanak egokitzea eta sustapen aproposa. Honek soilik ziurtatuko du gure sagardoaren etorkizuna. Gure burdina eta gure itsasontziak ezagutuz munduak euskaldunoi aitortu digun sona izateko ezin beste-koa izan den gure sagardoa.

Dema honetan Bizkaia nagusi, eta ni bere alde.

Jakobsa Errekondo

ria aterako du kalera Kalitate Fundazioak. Bertako sagarraz eginiko sagardoa oinarri izatea eskatzen du Kalitate Fundazioak ziurtagiria lortzeko. Hori horrela dela ziurtatzeko, Fraisoroko Laborategiek Kalitate Fundazioak egindako eskariaren araberako azterketak egingo dituzte. Egiten duten sagardoaren %10 bertako sagarraz egina bada, hori upela batzuetan gordetako dute, prezintatuta, eta sagardo horrek ziurtagiria jasotzeko aukera izango du. Beraz, sortzen duten sagardo guztia zati bat soilik bertakoaz egina izanda ere, ziurtagiria jasotzeko aukera izango dute.

Proiektuarekin bat egin dute Euskal Herriko Nekazarien Elkartasunak (EHNE) eta Euskal Herriko Laborarien Batasunak (ELB), eta baita Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako sagardo elkarteek ere. Halere,

**Arazoa pixkanaka handituz doa:
sagasti nahikorik ez izateaz gain,
lehenagotik zeudenak alde
batera uzten ari dira
baserritarrek, nahi adina etekin
lortzen ez dutelako**

Araba kanporatua izango den beldur da. Argi dute oinarritzko ezaugarriak betetzen dituztela, ondorioz, kanporatua izanez gero, arrazoi ekonomiko eta politikoak tarteko izango direla jakinaz dute.

Proiektuaren barnean dauden sagardotegietako buruek azaldu dute oso proiektu interesgarria dela eta esperantza handia dutela. Zehazki hogeitaz sagardotegi gipuzkoar eta zortzi bizkaitar daude prozesuan. Jada azken fasean dago, baina ez dakite noiz aterako den aurrera. Botilako sagardoari ezarriko zaio Label ziurtagiria, eta ez txotxerako upeletakoari. Etorkizunera begira prozesuaren parte ez diren sagardotegi gehiagok bat egingo duela dirudi. Gainera, horrek lehenagotik beharrek sortu eta urte batetik bestera sagastien munduari eragingo diola pentsatzen dute sagardo zaleek. ■

Josu Abrisketa

«Burgos aurre eta Burgos oste bat dago gure borrokaren historian»

40 urte, joan den abenduan Burgoseko epaiketa handia egin zenetik. Historiara igaro den makroepaiketa, Josu Abrisketa Txutxok darabilen hitzaren arabera. Hamasei auzipetu ziren, eta haietan gazteena zen bera. 19 urte zituen atxilotu zutenean, 21 epaiketa hasi zen garaian, 1970eko abenduan...

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Burgoseko epaiketa, 1970. Hamasei lagun auzipeturik.

40 urte! Azkar pasatu dira. Pentsatzen jartzen naiz zergatik ginen gu prozesu hartan, eta zergatik ari den gaur egun jendea borrokan, eta arrazoiak berak direla iruditzen zait. Euskal Herria zapalduta zegoen, eta zapalduta baino gehiago, erabat desegiteko bidean. Eta horren aurka altxatu ginen. Gure nazioaren desegitea gerarazi nahi genuen. Gerra ostetik ari ziren horretan, gure herria akabatu nahian. Hamasei lagun ginen auzipetuta, baina adibide bat baino ez ginen, berdin izan gintezkeen bostehun! Herria zegoen han. Herri borrokaren berpiztea izan zen, nazio borrokarena. Han egin genituen diskurtsoak hartu eta garbi ageri da hori. Itzietan [Aizpurua] euskararen defentsa egin zuen, Jokinek [Gorostidi] langile borrokarena, Lopez Irasuegik gerra preso zela esan zuen, Enrike Gesalagak bezala. Mario Onaindiak aurre egin zion tribunalari *Eusko gudariak* kantatuz, ez *Internazionala* kantatuz, edota *Gora eta gora Euzkadi*... Erabateko enfrentamendu totala!

Zuen mintzaldi eta parte-hartzeak antolatuta zenituzten.

Bai. Atxilotu gintuztenetik epaiketara bitarte, hogeitaz hamar urte joan ziren. Denbora horretan, behin baino gehiagotan aldatu ziren gauzak. Laster konturatu ginen epaiketa ez baina makroepaiketa handi bat prestatzen ari zirela, zentzagarri izateko asmotan, erresistentzia-

ren kontra. Eta garai hartan geu ginen erresistentzia. EAJk ez zuen ekimenik.


Nola planteatu zenuten epaiketa?

Abokatueta batzuek defentsa juridikoaren alde egin nahi zuten. "Zuk hau eta hura egin dituzu, halako egunetan, halako lekutan. Pistola zeneraman...". Era horretako kontuak. Guk uko egin genion bide horri. Bestela nahi genuen. Abokatu euskaldunak nahi genituen,

Nortasun agiria

Josu Txutxo Abrisketa Korta (Ugao, Bizkaia, 1949). Derrigorrezko ikasketak egin eta lanean zen 14 urte zituela. Laster egin zuen bat 60ko hamarkadan biziberritu zen langile mugimenduekin eta bertatik bertara parte hartu zuen Etxebarriko Bandak laminazio-fabrikako greba gogorretan. ETAko kide zelarik atxilotu zuen Espainiako polizia Bilboko Artekalen 1969ko apirilean, Bittor Arana eta Mario Onaindiarekin batera. Auzipeturik gazteena zen Burgoseko epaiketa garaian. Franco hil ondoko amnistia legearekin irten zen kartzelatik 1977an. 1983an atxilotu zuen Frantziako polizia eta Panamara deportatu, nahiz eta Kuba izan zuen azken helmuga. Habanan da harrezkero, lanean.





Burgoseko prozesuan, ezker-eskuin: goian, Arana, Gorostidi eta Onaindia; behean, Abrisketa, Larena eta Gesalaga.

baina ez genuen Espainiako Estatuko herrien borroka isilarazi nahi eta, beraz, penintsulako beste nazioetako abokatuak ere hartu genituen, adieraziz ez ginela ari Espainiako herriaren kontra, estatuaren kontra baino. Ni Creixek torturatu ninduen, Bilboko polizia-ren buruak. Katalana, torturatzailer frankista, ondo gaiztoa gero! Aulkia apurtu zuen ni jota! Ni ez nengoen Kataluniaren kontra, tor-

Estatuaren biolentzia

“Estatuaren biolentzia ikaragarria izan da, ETAk bere historia guztian erabili duena, eta ondoko ehun urtean erabil lezakeena baino askoz ere handiagoa. Estatuaren biolentzia, nazio bat ukatzea dakarren biolentzia hori, denik eta txarrena da! Palestinarrek, sahararrek sufritzen dutena, herri direla ukatzea... ez dago biolentzia handiagorik. Hura da lehenengo biolentzia”.

turatzailer haren kontra baizik. Epaiketa pres-tatu genuenean, defentsa ezberdinak garatzea erabaki genuen, galdera-erantzun bidez zapalketaren alderdi ezberdinak bistara ekar-tzeko asmotan. Horrela, abokatuen galderak guk munduari esan nahi geniona esateko bide izango ziren. Eta munduari bezala, Euskal Herriari, eta Espainiari. Niri, adibidez, galde-tu zidatenean: “Zergatik zeneraman pistola soinean?”. Nik “polizia espainolaren kontra neure burua babesteko” erantzun nuen. Eus-kal nazioaren defentsan ari nintzen. Haiek, berriz, espainiar nazioa defendatzeko zera-maten pistola. Alegia, gu ez ginen kapritxoz ari, niri behin ere ez zait pistola gustatu, baina erabakia hartuta zegoen: “Euskal Herria desegin nahi duen estatu horren kontra borrokatuko gara, ahal dugun moduan, ahal dugun bide guztiak erabiliz”.

“Bide guztiak”.

Bai. Eta denok bat gentozen horretan, hama-seiok. Momentu hartan denok bat ginen eus-kal nazioaren defentsan. Gaur egun bestelako bide politikoak bilatzen ari gara, baina estatua –orduko estatu bera, berdina–, zapalketa modua aldatu badu ere, lehenengo hartan ari da, euskal nazioa ukatzen, eta ahal bada, haren existentzia desegiten. Gaur egun esaten da: “Ez dugu ETA behar”, eta egia da. borro-ka armatuak ezin du gauza asko lortu. Ezin

izan du inoiz. Guk ere bagenekien. Behin ere ez genuen pentsatu ETAk boterea hartzeko indarra zuenik. Erresistentzia ginen, botereaz jabetzeko indarririk ez genuen. Gaur egun, bada alderik, gaur egun eraiki egin behar da nazioa. Berrogeitaka urte honetako borrokak estatuaren dinamika geraraztea lortu du, euskal nazioa desegiteko asmoa, alegia.

Nork eraiki behar du nazioa, nola?

Herria behar da horretarako. Gutxiengo batek ezin du herriarik eraiki. Gutxiengo batek estatuaren asmoa geraraziko du, baina ez besterik. Denborarekin, eta denon borrokarekin (borroka armatua, sindikatuak, masa mugimendua eta bestelako guztiak) estatuaren asmo suntsitzailerak gerarazi dugu. Baina orain herria eraiki behar dugu, eta herria eraikitzen ez badugu ez dugu ezer egin. Herria eraiki, nork eta nola galdetu didazu. Guk geuk, bate-tik, eta nazioarteko laguntzak, bestetik. Nazioarteko laguntza behar dugu euskal nazioa eraikitzeko. Borroka armatuak hor ez du egitekorik, ezin du ezer lortu.

Borroka armatua, kito, esaten ari zara...

Nazioarte mailan izen ona duen intelektual batek esan zidan behin: "Borroka armatuak estatuari kalte egiten baldin badio, baliagarria da, izan Euskal Herrian edo Kuban. Baina, halako batean, estatua borroka armatua bera interesen alde erabiltzera heltzen baldin bada, besterik da kontua, bi aldiz pentsatu behar da!". Horretan nago ni.

Eraikitzerakoan ere, ordea, nor bere bidean dabil, indarra ezin metatuta.

Preso sartu gintuztenetik hasi zen dispersioa. Alacanten egon nintzen ni, hogeita sei hilabetez, ziega batean. Besteak, han eta hemen. Amnistia legearekin irten ginen kartzelatik eta gehienok borrokari segitu genion, era batera edo bestera... Abertzale eta independentista izan ginen geroan ere, gehienok,

Borroka armatua

"Gaur egun borroka armatuak ez du zentzurik. Ezin dugu herri osoa armatu, eta gainera ez da behar. Nazioa eraikitzen behar dugu herria, horretan lan egin behar da, euskara eta euskal kulturaren arloan, memoria historikoa lantzen, harreman sozio-ekonomiko zuzenak lortzeko borrokan... Dinamika berri bat, euskal nazioaren arabera: 'Nazio gara, eta geuk erabaki nahi dugu!'. Lehenengo aldia da herriak hori dioena. Gure garaian ere jendeak hori nahiko zuen, baina isilik geunden denok, EAJ barne. Beldurra zegoen-eta. Estatuak jesusenak egin zituen-eta Euskal Herrian".

autodeterminazioaren alde, Euskal Herriak, eta herri guztiek, beren etorkizuna erabakitzeko eskubidearen alde borrokan. Dena dela, batzuk espainol egin ziren, bazter utzi zuten euskal nazioaren asmoa. Horra Mario Onaindia, Teo Uriarte, Xabier Markiegi... Ez ziren, besterik gabe, Burgosen aldarrikatu genituen printzipioen kontra jarri, ez, euskal nazioaren existentzia bera ukatzera heldu ziren. Zergatik jokatu zuten horrela? Mario, Burgos baino lehen, bitartean eta ostean ere, abertzale izan zen, Euskal Herriaren independentziaren alde borrokatu zen, era guztietako borrokak baliatu zituen, guk denok bezala. Burgos eta gero ere dinamika politiko-militarra bultzatu zuen. Halako batean, gogoetaren bat egingo zuen, antza, eta ez zela euskal nazionalista erabaki zuen: "Ni ez naiz abertzale, ni espainola naiz. Kito". Aukera egin zuen.

Auzipetuetan gazteena zinen zu.

Bai, eta zaharrena Jon Etxabe, abadea. Uste dut. 19 urte nituen jausi nintzenean, Artekalen, Bilboko parte zaharrean. Epaiketa hasi zenean, 21 urte nituen.

Atxilotu osteko torturak aipatu izan dituzu inoiz.

Tortura itzelak egiten zituzten garai hartan. Poliziak ez zuen batere problemarik arrastotzeko ere. Ez genuen modurik torturaren berri kanpoan emateko. Entzun, berriz, handiak entzuten ziren kalean. "Abertzale bat hil ditek, Bilboko erriroan agertu duk". Poliziak, berriz, esamesa horiek baliatzen zituen gu komisariatik atera eta beldurtzeko. Ni, esaterako, hiru aldiz atera ninduten, tiroa jo eta erriroa botako nindutela esanez...

Zer diozu abokatuez? Jose Antonio Etxebarrieta, Juan Maria Bandres, Migel Castells...

Nork bere abokatua zuen. Jose Antonio Etxebarrieta, jakina, Txabiren anaia zen, eta

lagunekin euskaraz

interneten ere bai

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, gozatu euskaraz.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

AZKEN HITZA

Metxa pizten militarrek

"Gutxi hitz egiten zen garai hartan gerraz. Gure ama Gernikako Omakoa zen, zubipean igaro zuen bonbardaketa, 14 urteko neba galdu zuen han. Aita kartzelan eduki zuten, gerran hil zioten anaia bat... Errepublikaren alde, faxismoaren kontra konprometitu zen gure familia, baina hala ere, gure etxean ez zen hartaz hitz egiten, beldurragatik. Burgos ostean jendea hitz egiten hasi zen, eta gazteak ordu arte ez bezala mugitzen, erakunde berriak sortzen, berpizten. Militarrek eskarmentagarria eman nahi izan zioten gure herriari eta, aldiz, beste metxa bat piztu zuten".

hori ere politikoki erabili nahi izan genuen. Nik katalan bat nuen abokatu, oso ona, iraultzalea, Sole Barbera. Komunista zen. Gerra garaian, edo ostean, kartzelan eduki zutela uste dut. Epaiketa hautsi genuenean, Mario *Eusko gudariak* kantatzen hasi zenean-eta, diskoetan entzuten den zera hori, gogoratzen dut Sole Barberak negarrari eman ziola, hunkituta. Ez nuen harrezkero ikusi. Abokatuekin harremanik izatea galarazi ziguten, eta Alacantera bidali ninduten gero. Epaiketa prestatzeko lanean behin baino gehiagotan hitz egin behar izan genuen elkarrekin, eta estimu handitan neukan. Hark ere asko erakutsi zidan. Ni 21 urteko mutikoa nintzen, eta gauzak azaltzen erakutsi zidan. Jose Antonio Etxebarrieta, berriz, gure lagunik handiena zen. Etxebarrietak eta guk, auzipetuok, prestatu genuen epaiketa, politikoa izan zedin. Guk geuk zuzendu genuen epaietaren estrategia, zein galdera egin, nola erantzun eta beste. Dударik ez izan horretan.

Zein izan zen estrategia hura?

Epaiketa apurtzera joan ginen, baina ez genuen hasieratik apurtu nahi, apurtuz gero ezingo genuen-eta azalpenik eman. Alfabetoaren arabera hasi zirenez, neu izan nintzen

Txabi Etxebarrieta

"Gazteria berpiztu egin zen garai hartan. Pentsatu egin zuen: 'Estatua ez da hutsezina, guardia zibila ez da hutsik gabekoa'. Txabi Etxebarrietak ez zuen halaberharrez topo egin guardia zibilarekin. Bosgarren biltzarrean bertan teorizatu zuen: 'Diren eta ez diren *burdinak* hartuta etengabe gu bortxatzen ari den estatuari kontra egiten ez diogun bitartean ez dugu aurrera egingo. Beharrezkoa da'. Txabi Etxebarrietaren ideiek eraman gintuzten Burgosera. Txabiren ideiek, eta beste batzuenak".

deklaratzeko lehena. Militarrek uste zuten builaka eta hoska hasiko nintzela, baina ez zen horrelakorik. Fiskalari, dena ezetz erantzun nion, ez nuela ezagutzen esan gabe, bestela nire mintzaldia galaraziko zidaten-eta. Abokatuaren txanda heldu zenean, mintzaldia egiteko aukera izan nuen; ordubate egon nintzen azalpena egiten. Itziar Aizpurua etorri zen nire atzetik. Azalpen magistrala egin zuen, euskararena eta euskal kulturarena... Militarrek alfabetoaren arabera segitu zuten tarte batean, gure asmoaz konturatu ziren arte. Ordena aldatu egin zuten, orduan. Gure estrategiaren arabera, Uriarteri zegokion epaiketa apurtzea, zerrendan azkena zen eta halaxe zegoen prestatuta. Baina epaileek ordena aldatu, eta Mariori egokitu zitzaion. Gerra presoak zela, ez zuela tribunala ezagutzen esan behar zuen, eta *Gora Euskadi Askatuta!* oihu egin, eta huraxe izango zen denok harekin bat egin, altxatu eta kantatzen hasteko unea. Horrela gertatu zen, eta guardiak hamaseiok handik ateratzen hasi ziren, bulzaka eta kolpeka.

Zer duzu Burgoseko epaiketa handi hura, 40 urte eta gero?

Nazioarte mailan oihartzuna izan zuen borroka gauzatu genuela esango nuke. Epaiketa hura, berriz, elementu inportantea izan zen gure historian. Euskal Herriaren borrokaren historian Burgos aurre eta Burgos oste bat dago. Burgosen erresistentzia berri bat loratu zen, suntsitu nahi zuten herriaren berpizte halako bat, euskal nazioarena. Burgosen hamasei lagun ginen, baina berdin izan gintzekeen milioi erdia! Burgosek erresistentziaren helduaroa ekarri zuen, handik atzera estatuaren dinamika apurtu arteko onik ez zen izango. Horrela segitu dugu.

Estatuaren biolentziaren kontrako borrokan kokatzen duzu Burgos.

Burgosen, borroka armatuaren aldeko militante eta kolaboratzaile zenbait epaitu zituzten, baina, batez ere, estatuak Euskal Herria desgiteko zerabilen borrokaren kontrako erresistenteak epaitu zituzten. Burgosek esnaera ekarri zuen, 1959az gero zetorren dinamikaren puntu gorena izan zen: herria, euskara, ikastolak, unibertsitatea, langile mugimendua... Estatuak borroka bide haiek denak apurtu nahi izan zituen. Burgosen, aurre egin genion estatuari, bide hartan segitu genuela esanez. Horregatik apurtu zen epaiketa *Eusko gudariak* kantatuz, ez besteren bat... ■

argia.com Burgoseko prozesuari buruz esandakoez zehaztasun gehiago gure webgunean.

Ukitzerik ez dagoena, kontatu

Negozio-lerro berriei atea ireki dizkie Internetek. Azpiegiturak murriztu ditu, tramiteak arindu eta erosleak klik batera paratu. Horrek ez du esan nahi, ordea, negozio tradizionalak baino denbora eta sakrifizio gutxiago eskatzen duenik; azken finean, bi ereduen arteko aldea ez baita horren handia.

JON TORNER

KOMUNIKAZIOA ETA GARDENTASUNA. Negozioa Interneten jartzen duenak ezinbestean hartu behar ditu horiek aintzat. Wegbune erakargarri eta praktikoa sortu, norberaren produktuari buruzko nahikoa informazio eskaini, azalpenak argazki eta bideoekin hornitu, eskaeren gaineko unean uneko argibideak eman (produktua noiz bidali den, nongo posta-bulego edo aireportutan dagoen...), erosketa prozesua ahalik eta gehien erraztu... Gauza ugari hartu behar da kontuan, bezeroa behar bezala ez zaintzeak, negozio tradizionaletan gertatzen den

Begoña E. Sanchez (ezkerrean) eta Itsaso Novo, Jositajosi egitasmoko logotipoarekin. Ezkerreko irudian, Iphone-arentzako zorroa.

moduan, norberaren irudia kaltetu baitezake. Eta jakin badakigu izen ona nahiz txarra eurotan ere neur daitekeela.

Iritzi bera dute Karmele Luqui urretxuarrak, eta Begoña E. Sanchez eta Itsaso Novo bilbotarrek. Denda dute Interneten, urretxuarrak batetik eta bilbotarrek bestetik, itxuraz behintzat arrunt desberdinak diren produktuekin. Abanikoak saltzen ditu Luquik, eta Apple markako gailuentzako zorroak Sanchezek eta Novok. Azalez ez, baina funtsean gauza bera dira. Eskuz eginik daude guztiak. Eskuak egurra, larrua, oihalak



moztu, josi, itsasteko. Eskuak ordenagailuen teklatuak astintzeko.

Komunikazioa

Luquiri Alemanian sortu zitzaion Internet bidez abanikoak saltzen hasteko ideia, 2008an. Trenean zihoan egun bero batean, putz egiten ari zitzaion abanikoa emakume bati laga zion, ordura arte halakorik erabili gabea baitzen. Urretxura itzuli zenean, pasadizo hori gogoa, buruan zebilkion ideia bat gorpuztea erabaki zuen, lana aurkitzeko zailtasunek eta eza-gutuzen zituen bi esparru, eskulana eta Internet, uztartzeko desioak bultzatuta. Oléle markako abanikoak dira horren fruitu.

Aurkakoa pentsa litekeen arren, eskulanari denbora gutxiago eskaintzen dio Interneti baino: “Online negozioetan produktuak garrantzi handia du, baina promozioak are gehiago. Erosleak ezin du produktua ukitu, eta begiez ikusten duena zaindu behar da: argazki txukunak jarri, beharrezko azalpenak eman... Webgune espainiar ugari ez du produktuari buruzko nahikoa informazio ematen”.

“Hein batean, berdin galde diezaiokegu zapata-konpontzaileari denbora gehiago zerk eskatzen dion, oinetakoak konpontzea ala bezeroak artatzea”, diote Begoña E. Sanchezek eta Itsaso Novok, Jositajosi proiektuaren sustatzaileak. “Ez dugu uste Mac batentzako zorroa jostea eta webgunera argazkia igotzea jarduera desberdinak direnik”. Dena den, euren hitzetan, bada gauza bat denbora asko kontsumitzen

Prezioak eta denbora

Oihal gehienak Internetez erosten ditu Karmele Luquik (ezkerreko argazkian), beste batzuk Bartzelonan, edo Urretxun, politak baldin badira. “Merkeagoa da ordea Japoniako telak erostea, Donostiara joatea baino”, diosku. Egurra Valentziako tailer bati eskatzen dio, eta larruzko zorroak Cadizetik bidaltzen dizkione, neurrira ebakita. Lehen berak egiten zituen, baina denbora asko kentzen zion. “Etengabe ibili behar zara prezioak eta denbora orekatzen”. Azkenik, txarteltxoak Moo enpresa ingelesari erosten dizkio. “Uneoro esaten dizute 100-200 kartulinatxoekin eskaerarekin zer pasatzen ari den: ‘Bihar bidaliko dizkizugu, arazo bat izan da eta hiru egun atzeratuko gara, jada bidali ditugu Espainiara...’. Ikasgai ona da”.

duena, ongi eginez gero bederen: erosleekin komunikatzea.

“Estatubatuarrengandik ikasi behar dugu”, gaineratu du Luquik: “Dena kontatu behar dela uste dute. Hemen lotsatiagoak gara eta beldur gehiago dugu; pentsatzen dugu kompetentziak gu ikusi eta kopiatu egingo gaituela. Nahi izanez gero, lehiakideek jakingo dute zer-nola egiten ari garen; Interneten hori saihestea oso zaila da”. Dioenez, oro har, estatubatuarrek komunikatzeko behar handiagoa dute eta sare sozial zein foroetan gehiago idazten dute. Dena den, hemen ere mugimendu handiagoa sumatzen da. Normala omen da, geroz eta bezero gehiago daudelako Interneten.

Sanchezek eta Novok ez dute uste, “lotsa eta sekretismoa” hizpide hartuta, Interneteko proiektuen kasuan hain atzean goazenik. Euren hitzetan, “AEBak komertzio mota horren sorkuntza-polo nagusia izateak, agian, ez du hainbesteko loturarik abiatzen diren ekimenen kantitate edo kalitatearekin, horiek kontsumitzen dituen merkatuaren tamainarekin baizik”. Hori bai, Espainia herren samar ei dabil nazioarteko bidalketei dagokienez. Funtsean, aukera bi besterik ez daude: bermerik gabeko bidalketa (Correos), eta modu azkar baina garestiagoa (mezularitza enpresa pribatuak).

Gardentasuna

Internet bidezko eta ohiko negozioen arteko aldeez mintzatzean, bilbotarrak ere bezeroekiko tratua mintzo dira: “Interneten ez



Etsy.com

Bai Karmele Luquik, bai Begoña E. Sanchezek eta Itsaso Novok, AEBetako Etsy webgunean paratu dituzte beraien denda birtualak. Eskuz egindako produktuentzako *marketplace* handiena da. Lau milioi erabiltzaile baino gehiago ditu, eta hilean 30 milioi dolarreko salerosketak egiten dira bertan.

Luquik dioenez, erabilgarritasun aldetik Etsyk abantaila franko ditu (denda sortzea erraza da, gomendio ugari eskaintzen ditu, foro aberatsa du, erabiltzaileek elkarri bozka diezaioke...), baina badu alde negatiboa: erabiltzaileen ikusgarritasunari eragiten dioten diru-sarrerak. Webgunean ez dago publizitaterik; irabaziak beste modu batera lortzen ditu: produktu (abaniko) bat dendan jartzeak 0,20 dolar balio du, eta saltzen den produktu bakoitzeko Etsyk komisio

txiki bat eramaten du, denda gehientsuenek bezalaxe. Kontua da, haren bilatzailean sartuz gero, aurreneko begi-kolpean "Most Recent"-en arabera zerrenda ikusten dela. Alegia, lehenbiziko postuetan produktu "berrienak" daude. "Goialdean egoteko, etengabe sareratu behar da produktu berri bat, edo lehendik daukazu produktu bakoitzeko bat berri. Hori egiten duzun bakoitzean 0,20 dolar ordaindu behar dituzu. Nire kasuan ez, baina produktu batzuetan kompetentzia handia dago, eta denda sarri berri behar da, zerrendaren goi-partean –lehenengo orrian– azaldu nahi baduzu behintzat, oso jende gutxi pasatzen baita bigarren orrira", urretxuarrak.

Sanchezek eta Novok negozio-lerro berria ireki zuten duela gutxi: haurrentzako arropa.

dago hurbileko hartu-eman fisikorik, auzoko dendetan gertatzen den moduan". Kontaktatu falta hori gardentasunarekin eta proaktibitatearekin ordezkatu behar dela iritzi diote: sare sozialetan norberari buruz esaten dena aintzat hartu behar da, bezeroei euren eskaeren nondik norakoen berri eman, *feedback*-a bultzatu, egindako huts egiteak arin zuzendu... "Hori eginez gero, errazago gaudituko duzu jendeak zure produktuarekiko izan dezakeen mesfidantza". Dena den, ez dute uste online negozioak eta tradizionalak hain desberdinak direnik: "Akaso ez al litzaziguke gustatuko enpresa askok ere horrela funtzionatzea? Nori ez diote entzungor egin, establezimendu batean kexa bat jarri eta erantzuna jaso arte asteak ala hilabeteak pasa direnean? Zure produktua erdipurdikoa baldin bada, ez baduzu ongi aurkeztu eta eskaintzen duzun zerbitzua profesionala ez bada, arazoak izango dituzu, Interneten, merkatal zentro batean zein zure auzoko dendan".

Eskaerak 30 herrialdeetatik jaso dituzte Sanchezek eta Novok: AEBetatik, Hego Koreatik, Arabiar Emirerri Batuetatik... Espainiako Estatuko salmentek ehuneko txikia hartzen dute, gehiago saltzen dute Herbeheretan, Alemanian edota Danimarkan. Luquik Australia du orain jomuga, uda delako han: "Horrek ez du esan nahi derrigorrez gehiago salduko duzunik. Saudi Arabiarekin saiakera egin nuen Facebook bidezko iragarki kanpainekin. 40 gradutara daude, jende ugari bisitatu zuen nire denda, baina erosketarik ez zen izan. Antza, han ez dute Paypal erabil-

tzeko ohiturarik, eta ez dira gehiegi fio merkataritza elektronikoa".

Laguntza politikaz kexu

"Gauza jakina den arren", diote Sanchezek eta Novok, "jende askok uste du 'Interneten egotea' dela web bat edo domeinu bat izatea, eta harrigarria bada ere, 'berrikuntza' politikak eta informazioaren gizartea garatzeko laguntzek ideia hori indartzen dute, 'jarri zure negozioa online urtean x euroren truke' bezalako mezuekin". Luquik etsipenez hitz egiten du Eusko Jaurlaritzak enpresa txiki eta ertainentzako 6.000 euroko diru-laguntzak kendu izanaz: "2010 hasieran esan zigutenez, eskakizunak aurkezteko epea abuztura arte luzatuko zen, baina maiatza inguruan Jaurlaritzari dirua agortu omen zitzaion eta martxoaren 18tik

aurrera aurkeztutako eskakizunak atzera bota zituzten. Jende askok autonomoetan alta eman zuen diru-laguntza horiek kontuan hartuta, eta orain ez dute ezer jasoko". Urretxuarrak dio berak ez duela pabilioi berria behar, ordenagailu berria baizik, edota sektoreko azoketara-eta bidaiatu ahal izatea. "Gastu horiek handiak dira niretzat", esan digu: "Ea aurren beste aukeraren bat sortzen den. Nik dena den ez daukat fede handirik diru-laguntza publikoengan, eta polikiago joan arren, baliabide propioekin hazten jarraituko dut". ■

<http://olele.es>

<http://olele.etsy.com>

<http://jositajosi.com>

<http://blog.jositajosi.com>

Interneten ez dago hartu-eman fisikorik. Kontaktatu falta hori gardentasunarekin eta proaktibitatearekin ordezkatu behar da

ASISKO

MATTIN IRIGOIEN

ADUR

OKATXU

hegal egiten



Okatxu arkumea jaio da Ipar Euskal Herriko arditegi batean. Ama eta beste axuriak, artzaina eta zakurrak, koiole amerikar euskalduna, mendizale bizkaitarrak... Mundua ezagutzen joango da pixkana-pixkana.

Elkarriketa bizi eta jostariak, hizkuntzaren aniztasuna lanabes: Xuka, Toka eta Noka, euskalki arteko jolasak, artzain-eleteria, erran zahar eta berri... Eta hori guzia abentura dinamiko eta irringarrian zehar.



KAMISETA + LIBURUA

22€



argia

 ESKAERAK: ☎ 943 37 15 45 | denda@argia.com



Ertzeko zatiak

Jon Sarasua



Ertzeko zatiak

Jon Sarasua



Hego hemisferioan izandako lan bidaietan, bost urtetan zehar hurbileko lankideentzat idatzitako testu laburren bilduma da.

Hondartzan bildutako egur puska, harri eta itsas-hondakinak bezalako zerbait dira... "Eta etxera daramatzazu, batzuk bakarrik. Ez dute areetan zegoena errepresentatzen. Ez dute hondartzan gertatutakoa biltzen. Halaxe dira testu pusketok, lagunentzat tarteka bildutako zatiak".

Gezurrik faltsuena

E

gia eta zoriona izango dira, segur aski, gizakiari galdera gehien sorrarazten dizkioten kontzeptuak edota gizakiak gehien bilatzen dituenak. Kontua da, Irigoienek zioen bezala, egia poliedrikoa dela. Eta poliedrikoa da egia horren gainean gutariko bakoitzak egiten duen interpretazioa ere. Errealitatearekin beste hainbeste da gertatzen.

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padrón



Sarasola

(batez ere gizonak) miretsi eta goretsi dituenak.

Egiak balio handia dauka gurean. Gehiegizkoa, beharbada. Jakinik, gainera, gezurretan faltsuena dela egia. Honetan, komunikabideek asko dute esateko. Eta, honetan, ilusio sortzaileek asko dute bekataritik. Baina horrekin

bizi gara. Eta elikatu egiten dugu. Zeren eta gure egiaz mintzo direnean, jokoa erraz onartzen baitugu. “Beste egiak” dira, izan ere, errealitatetik urrunduak iruditzen zaizkigunak.

Ez dago egia bakarra. Errealitate bakanik ez dagoen bezala. Horregatik iruditzen zaizkigu astakeriak batzuek esaten eta sinesten dutena. Horregatik faltsua beste batzuek bizi dutena. Baina egun bat beraien azalean jartzeari bestelakorik ez dago. Gauza askotxo ulertzen dira, onargarriak irudituko ez bazaizkigu ere.

Egia mozkorrek eta umeek ez ezik, burua galduta dutenek ere esaten dute. Euren nahasian, eromena sortu dien lasto-mina baztertuz gero, tarteka-marteka, egia tanta lodiak jaurtitzen dituzte. Ez ditugu entzuten. Ez diegu jaramonik egiten. Eta, beraiek, ezer galtzekorik ez dutelako, egia esaten jarraitzen dute, nahiz eta badakiten, egiaren bakartasuna manipulatzeko dutenen mirabe izango direla, egiari hego bat gehiago jarri nahirik, eta errealitate maluta inpresionista bat poliedroari gehitu ezinik.

Entzuteko eta ulertzeko gaitasun apur bat gehiago bagenu, edota jabetza unibokoaren kontzeptzioa apur bat apalago, orduan, beharbada, egia eta bizi dugun errealitatea bera ere, zalan-tzan areago jarriko genituzke. Eta jasangarriagoak ginatke. ■



Gure herria fededuna (izan) da;

auzolanean eskarmentuduna; egia esateagatik

nekalduna; egiaren bila abiatzeagatik galduna;

eta egiadun gizon-emakumeak (batez ere

gizonak) miretsi eta goretsi dituenak.

Egiak balio handia dauka gurean.

Gehiegizkoa, beharbada



Badakigu badirela berariaz egia manipulatzeari lanbide dutenak. Badira, horretan oinarrituta euren boterea legitimarazten dutenak. Aitzitik, bada herririk nahiz hiritarrik, egia saltzaileak behar dituenik. Eta bada egia saltzaileak behar dituenik erabaki bat hartzeko, iritzi bat izateko, nortasun baten jabe dela sinesteko, zerbaiten parte sentitzeko, fedean bizitzeko, edota hartu duen erabakia “halaxe” dela sinestea komeni ez ezik, beharrezkoa duenik seguru sentitzeko. Eta, gutxi asko, guztiok jolasten dugun jokoa dela esatera ausartuko nintzateke. Nor bere betaurrekoen babesera.

Gure herria fededuna (izan) da; auzolanean eskarmentuduna; egia esateagatik nekalduna; egiaren bila abiatzeagatik galduna; eta egiadun gizon-emakumeak

Joxemari Carrere Zabala

IPUIN KONTALARIA

Kultur Bonoa eta merkatuaren legea

Badira urteak entzuten ditugula kulturaren merkatua eta kulturaren industria kontzeptuak sormen lanen ezagutarazteari lotuak. Produktu bat ekoiztu eta salmentara atera, eskaera eta eskaintzaren legeen arabera egokitu eta hor ikusiko da zein den konpetitiboagoa. Izango dira arrakasta lortuko duten enpresak eta ekoizpenak, eta, halakoxea da merkatua, frakasatuko dutenak.

Beraz, merkatu horrek kontsumorako pizgarriak behar ditu. Azoka horrek hainbat sektore hartzen ditu: sortzaileak, ekoizleak, banatzaileak, saltzaileak eta erosle-kontsumitzaileak. Bakoitzak bere papera betetzen du eta guztiek dituzte beren premiak. Halaxe, kulturaren antolamendua merkatu kapitalistaren logikaren barnean antolatzeko bidea ematen da, kontsumoa bultzatuz ikuspegi ekonomizista baten arabera eta merkatuaren eskaeraren arabera egokituz eskaintza. Eta guztiok gure aldetik jarri behar omen dugu krisi sakonetik irteteko, beraz utz ditzagun ideia ameslariak eta utopikoak, beren ederrean hala ere, eta hel diezaio-gun errealtateari.

Eta horrela Kultur Bonoa asmatzen da, kultur kontsumoa bultzatuko omen duen trikimailua.



DANI BLANCO

Hilabeterako Eusko Jaurlaritzak 800.000€ inguru luzatzen ditu kontsumo hori pizteko. Jakina, nor kexatuko da liburuak, diskoak edo ikuskariak merkeago jasotzeagatik? Guztiek irabazten omen dugu: saltzaileak, ekoizleak, sortzaileak zein erosle-kontsumitzaileak. Salmentak igoz merkatua bera animatzen omen da. Egia ote ordea? Egia ote da kulturaren

bideen zuloak konpontzen direla horrela? Eusko Jaurlaritzak delako bono horri eskainitako dirua antzerkiaren ekoizpenerako 2010 urtean dedikatutakoa bezainbeste dugu. Eta bonoaren diru horretatik zenbat bideratuko da aurreko urtean ekoiztutako antzerki lanetara? Euskal antzerkigintzaren merkatua indartuko ote zuen hilabete horretan Kultur Bonoak? Antzerkigintza merkatuaren legearen menpe utziz, ekoizpen handiak, merkatuan aritzeko baliabide handiagoekin dabiltzanak, izango dira bonoaren onurak jasotakoak. Halakoa baita merkatua, txikiak baztertu eta handiak bultzatu. Tamalgarrina da instituzio bat politika horren bultzatzaile izatea. Bitartean sortzaileak mahai handi horretatik erortzen diren ogi papurrak biltzen jarraituko dute. Kulturgintzak behar duena da sortzaileen lana babestu, bultzatu eta zabalduko duen benetako politika, ondasun sozial gisa ikusiko duena eta ez merkaturatu beharreko industria soil gisa. ■

Egia ote da kulturaren bideen zuloak konpontzen direla horrela?

Eusko Jaurlaritzak delako bono horri eskainitako dirua antzerkiaren ekoizpenerako 2010 urtean dedikatutakoa bezainbeste dugu

TXANDAN

Castillo Suarez



Ez dakigu bere izena, baina ba omen da Amerikako Estatu Batuetan emakume bat

beldurra sentitzeko gai ez dena. Izan ere, emozioak kudeatzen dituen burmuinaren zatia kaltetua omen dauka. Urbach-Wiethe gaitza dauka eta oso bakanak dira gaitz hori dutenak. Esaten dutenez, emakumea ez da gai arriskuez jabetzeko, eta hori dela eta edozeinek saihestuko lituzkeen egoerak eta tokiak (animalia arriskutsu bat inguruan, beldurrezko film bat, auzo *undergroundak*, arma bat berari zuzendua...) ez dira bere-

Beldurrik gabe

tzat apartekoak, areago, ikaragarriko jakinmina sorrarazten diote. Emakumea gai da alai edo triste jartzeko, baina ez ikaratzeko.

Pentsa ezazu zer izango litzatekeen beldurrik gabe bizitzea; besteen aurpegian ikara ezagutu ahal izan gabe; heriotza gero eta gertuago dagoela pentsatu gabe; arriskuei erreparatu gabe. Pentsa zer izango litzatekeen bakardadeari beldurrik ez izatea; onartua izateari; maitatua izateari; bidaia-tzeari; jendez inguratuta egoteari. Besarkadak emateko gai izango zinateke? Norbaiti eskutik heltzeko? Bizi ahal izango zinateke beldurrik gabe? ■

Rosa Maria Martín Salazaris

EHUKO IRAKASLEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOETAN ADITUA

Agdeim Izik eta Facebook



Marokoko poliziak aste batzuk lehenago –2010eko azaroaren 8an– modu baketsuan eraikitzen hasitako kanpalekua birrindu zuen Mendebaldeko Saharako hiriburuan.

Aste batzuetan zehar hedabideek informazio ugari eman zuten, eta atxilotetak, hilketak, desagerpenak eta torturak egunkarrietan eta telebistetan agertu ziren, eta baita agintari espainiarren hitz epel eta lerdetsuak ere. Tarte labur batez, kanpalekuan eragindako sarraskiak komunikabideen arreta erakarri zuen. Informazioaren ugaritasunak are gehiago jakiteko egarria piztu zion askori, eta sarera jo zuten. Eta han ozeanoa aurkitu zuten.

Web orrialdeen eta blogen gainetik, Facebook nagusitu zen, eta askok, azkenean, zentzua eta erabilgarritasuna aurkitu zizkieten Facebook-i. Jaimak eta begizta beltzak edo hildako umearen aurpegia profileko argazki bilakatu ziren. Telebistak eman ez zituen YouTube-ko bideo guztiak elkarbanatu ziren. Hamaika aldiz biderkatu ziren aste haietan lagunak eta lagunaren eskaerak. Facebook-en kontua zuen saharar eta sahararazale bakoitzak munduan milaka lagun zituela pentsatu zuen, eta euforia horretan lagun eskaera guztiak onartu zituen. Eskaeren sinesgarritasuna eta fede ona aztertzeke, batzuek ize-



INIGO AZKONA



2011ko lehen egun hauetan
Agdeim Izik-en parte hartu
zutenen atzetik jarraitzen du
poliziak, Facebook-eko
informazioari esker



nari begiratu zioten, beste batzuek argazkari, eta azkarrenak lagun komunei: nire lagunak lagunak nire lagunak dira...

Horrela lortu dute Marokoko zerbitzu sekretuek informazio piloa. Lagun, argazki, bideo, adierazpen eta adiskideen inbentarioak egin dituzte. Hemen inguruan dabil-tzanei ez omen die ekarri arazorik. Hainbatek zibergerraren ondorioak pantailaraino bakarrik iristen direla uste du. Baina Facebook-en bitartez lortuta-ko datu-base horrek ondorio fisikoak, errealak eta latzak eragin ditu okupatu-tako lurraldeetan: atxiloteta, tortura eta desagerpen gehiago.

Pobre bizi dira marokorak, erregea-ren sosak zeregin zikinetan inbertitzen diren bitartean: sarean aldeko iritziak sortzeko edo, haren luxuzko bertsioan, kazetariak eta intelektualak erosteko. Inbertsioa baita eta ez xahubidea New Yorkeraino NBERen aurrean Marokoren alde hitz egitera urrian joan zirenak ordaintzea. Euskaldunik ere tartean.

Orain Gabonetako burrunbak ixilarazi du Saharako gertaeren oihartzuna. 2011ko lehen egun hauetan Agdeim Izik-en parte hartu zutenen atzetik jarraitzen du poliziak, Duintasunaren Kanpalekuaren parte-hartzaileak atxilotzen, Facebook-eko informazioari esker. Batzuk Aaiungo Kartzela Beltzean daude, auskalo non besteak. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Egunak joan zaizkigu. Atzo, egunero kafea hartzen dudun tabernan nire kafearena baizik ez nuen aditu. Eta lurruna ez da kea. Hau sanoa dugu. Bertan ostatuan zigarroa erretzeko ohiturari segida eman ezinik, Lapurditik Gipuzkoara egiten zuen jende andanaren falta sumatu omen du jada tabernariak. Tabakoa eta patarra erosi, eta tabernan sartu gabe joaten omen dira lapurtarrak beren kotxeak erregaiez betetzera gasolindegira zuzenean, aurtengo bigarren egunera arte tabakoa errez tertulia luzetxoak egiten zituztenak bertako tabernetan. Ateri zegoen taberna. Eta atarian jarri behar izan dituz-

Ke arteko

te mahaitxo zenbait hautsontziak baliatze aldera, gauetik goizera dekorazioa ere ez dela komeni aldatzea erabat pentsatuta. Baina zigarroa erretzeak edozein posturan ez du plazer bera ekartzen, eta kanpoan zegoen tenperaturak ez zuen jendea animatzen. Aurki, atariko erretzaileentzat TAO bezalako zigorra jartzeko kapaz dira Herriko Etxekoek dituzten zorren plazebo. Eta esan dutenez, arratsaldetako muslariak leku pribatu baten bila dabil-tza jada, tabernariaren desesperaziorako. Telebistetako futbol partiden erakartzeak ere, kerik gabekoek irentsi omen dituzte tragoak eta guzti. Hala ere, ni Zaragozako ikustera noa tabernara. ■



argia


www.argia.com/multimedia

*bertsio digitaletik harago
argi berri bat sarean*



Bideoak

Elkarriketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.




Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenarako.



Ekitaldiak

Euskal Herriko txoko ezberdinetan emandako hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean euskaraz.



Film laburrak

Euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat bi astean behin. Euskaraz edo euskarazko azpitituluekin.

ZIRTAK

Patxi Zubizarreta

IDAZLEA

Egun batez, komikigile ezagun bat Kataluniako eskola batera joan, eta handik gutxira argitaratzekoa zuen originala erakutsi zien ikasleei; tartean bazen mutiko marrazkizale bat eta, lana eskuz esku zerabilela, supituki, ezkutuan puntu ñimiño bat marraztu zuen azken orrialdeko azken bine-tako ertz batean. Bere sekretuarekin eta jakingosearekin, mutikoa harrezkero sarritan joaten zen kioskora, eta noizbait ere komikia plazaratu zen, eta horra hor bere puntua, horra bere lehen argitalpena! Mutikoak ale guztiak erosi zituen, badaezpada ere puntua denetan ote zegoen ziurtatze aldera, eta hortxe egon geroztik marraztera adoretu zuen abiapuntua. Orain ospetsua den marrazkilararen izenaz oroitzen ez naizen arren, pasadizoa ongi gogoan dut, eta, hark erabilitako antzeko lizentziaz baliatuko naiz Quim Monzóren *Aspaldi handian* (86 contes) ipuina moldatzera eta gureru ekartzera:


“Eta hara non, egunsenti gorritzatez, hominidoa haitzuloko sarre-raraino joan, eta atzealdeko bi hanken gainean altxatu zen. Begiak beherantza zuzendurik, lurra ohi baino urrunago ikusi zuen, eta bertikal-tasun ezohiko hark halako zorabio gozoa eragin zion. Begirakunea jasorik, glaziarraren ingurumarian animalia saldo izutiak bistatu zituen eta begi ezin zabalduagoe-tan eguzki gorria islatu zitzaion. Halako zorion bulkada sentitu zuen orduan, hala nola sentitu ohi zuen beste taldekideren batek sutsuki besarkatzen zuenean. Eta hominido hark, oin izandako bi esku eta hamar hatz haiek deskubritu berritan, pozarren eta alegera, haitzuloko hormak marraztu zituen eta, piztia bat ehizatutakoan, haren bihotza odol jario jan ostein, dantzan eta esku zartaka ibili zen, eta, ororen buru, musika nota batzuk atera zizkion hodi gisako hezurño bati.



DANI BLANCO



Zilegi bekit amaiera aldatzea,
guri dagokigulako gure historiari
orain arteko harridura eta galdera
ikurren puntuñoen orde, eten
puntuen orde, inondik inora
amaipuntua izango ez den
bestelako puntu eta
jarrai bat ematea



irudia:
Antton Olariaga

Eta hara non, ilunabar azulean, hominidoak zeruaren deskubrimendua egin zuen. Begiak lurraren pare erabiltzera ohitua, liluraturik geratu zen zeruaren kupula azkengabearen aurrean, edota ordurako dirdaika ari zen Artizarraren azpian. Lepoko minez, begirakunea atzera lurrerantza jaitsi, eta ahoa ahotsez betetzen ari zitzaiola nabaritu zuen: ‘A, o, oba’; eta laster: ‘U, lu, lug’; halako batean, ostera, txilio gisako haiek gutxi-asko bokalizatutako hitz bilakatu ziren: ‘Lur’, eta hatz erakusleaz oinen behealdea seinlatu zuen. Hatza aurreragoturik, ‘urg, gur, ur’ jaurti zuen erreka bati begira; eta ‘ez, zeu, hezur’ atera zitzaion piztia txikituaren hezurdurei begiraturik; eta ‘ur, zug, zur’ esan zuen zuhaitz baten enborra begiz jotzean; eta ‘el, ur, elur’ jalgi zitzaion lehen malutak inguruka hastean; eta, akabera, burua berriro jaso zuelarik, ‘urg, urt, urtzi’ esan zuen. Irri firfira bat atera zitzaion orduan, eta eskua uretan sartu zuen, eta, hezur bat harturik, zuhaitzaren enborra jo zuen, ttakun-ttakun-ttakun, eta elur zati bat ahoratzean ito egin zituen hitz berri haiek guztiak. Goizean bertikaltasunarekin nola, halatsu sentitu zen orain, hots izandako hitz haiekin liluratua. ‘Urg, geur, eus’ jarraitu zuen ahoko elurra urtzean, eta, lasaiago, jostarinago: ‘eurk, urik, errik’; eta, pozarren eta alegera, ‘eus kal be rri a’ atera zaitzaion, ezin garbiago ebakia, eta hominido errukarri arduragabe halakoa ez zen ohartu ere egin sortu berria zuen kalapitaz edo nahas-menduaz”.

Jakina, Monzóren jatorrizko ipuinean *Països Catalans* ageri da, baina, esan bezala, zilegi bekit amaiera aldatzea, instant honetan, guri dagokigulako gure historiari orain arteko harridura eta galdera ikurren puntuñoen orde, eten puntuen orde, inondik inora amaipuntua izango ez den bestelako puntu eta jarrai bat ematea, agian, urte berri gu ere adoretuko gaituena ■

BERTSO BERRIAK

Aitor Allaistur

Bizi artean hil

NAGORE LEGARRETA



I

Azkeneko
argi printzen
indar falta
nabaritzen
hasterako,
Biarritzen
tragedia
nagusi zen.
Nabiz bizirik
irten nintzen
nahigabea
ez da hiltzen...
Nabiz bizirik
irten nintzen
ez dut segi
nahi bizitzen!

II

Neguan hotz,
udan bero,
hondartzara
pozez ero
hurreratzen
ginenero
disfrutatzen
nuen gero!
Orain hobe
igandero
hain bakarrik
ez banengo...
Orain hobe
igandero
iganderik
ez balego...

III

Ez dut ahazten,
ohi bezela,
etxerantza
gentozela,
behin pasata
lehen tunela
istripua
jazo zela.
Bizitza zein
den krudela,
familia
hil nuela!
Bizitza zein
den krudela,
ni bizirik
nagoela!

IV

Iratzarri
arte guziz,
begetalen
eran biziz,
urtebete
bat desgraziz
pasa nuen
penei eutsiz...
Orain diot
hainbat aldiz,
hobe zendu
izan banintz...
Orain diot
hainbat aldiz,
koman egon
nahi dut berriz!

V

Tetraplegiak
arazorik
ekarri dit
nahiz osorik
egon, zeren
ez dut lorik,
ez hankarik,
ez besorik...
Laguntza nork
emango dit,
erizainen
bat edo bik?
Laguntza nork
emango dit,
ez badut nahi
halakorik...

VI

Orain ahalik
eta maizen
jasandako
zorigaitzen
mina, nola
ez den ahitzen,
saiatu ohi
naiz garaitzen.
Baina zaila
zait epaitzen
garai ona
ze garai zen...
Baina zaila
zait epaitzen
pertsone bat
ote naizen...

VII

Izan harro
edo umil,
gizakiak
drama hurbil
du, patuak
modu putzila
mingarrian
badarabil.
Ezin banaiz
bizi trankil
legedia
zertan dabil?
Ezin banaiz
bizi trankil
nahierara
nahi nuke hila!

VIII


Eutanasia
kontzeptura
hurbiltzeak
barne-guda
eragiten
badu, duda
etorri ohi
da burura...
Nork ulertu
behar du ba
sufritzen ez
duen hura?
Nork ulertu
behar du ba
bizitzea
den tortura.

DOINUA: "Itsasoa laino dago".



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Literatura



UNIVERSITY OF WEST FLORIDA

Ziberletretan dena dago esateke

Zer etorriko den ez dakigu baina bai gauzak aldatzen ari direla. Letrak pantailara doaz eta inozoa litzateke pentsatzea testuak paperean bezala izango direnik. Literatura digitala, ekranean leitzeko pentsatua, hasi da bidea urratzen. Idazle anglosaxoiek hartu dute aurrea, baina katalanez ere obra eta egile interesgarriak plazaratu dira azken urteetan.

GORKA BEREZIARTUA

IA KONTURATU BARIK “liburu digitala” bihurtzen da solasaldiaren erdigune, literaturaz eta digitalizazioaz hizketan hasi bezain pronto. Nola ekarri kode binarioa orain arte paper, kartoi, kola zen hori. Nola banatu. Zein gailutan irakurri. Nola moldatu argitaletxeen negozio-eredua. Baina testuaz gutxi hitz egiten da, digitalean zabaltzen ari

den literatura gehiena paperean publikatzen den berbera delako, ingurune teknologiko berri batean leitzeko prestatu bada ere. Paper eta tinta bihotza dute ekoizten diren ia obra guztiek, pantailetan geroz eta gehiago irakurri arren.

“Ezagunetik—alegia, liburutik— ezezagunera —pantailara— bidea egiten ari gara” dio

Laura Borràsek; ibilbide horretan liburua kaskotik ezin aterata ibiltzea ulergarria da, nahiz eta zama moduko ere baden, aukera berriei ikuspuntu zaharrekin erantzuten saiatzea delako. “Momenturen batean, frikzioak sortzen dira, literatur generoak historian osatzen joan direlako, ezaugarri anitzi erantzunez: euskarria, luzera... Aldiz, pantaila unitate bera da guztiarentzat”.

Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea, azken hamaika urteetan ohiko irakaskuntza uztartu du ingurune birtualetan eskaintzen dituen klaseekin; eta bere unibertsitateak Grup 62 editorialarekin batera antolatzen duen *Literatura aro digitalean* masterra zuzentzen du. EHUren Leioako campusean izan da 2010aren hondarrean, pantailan irakurtzeko beren beregi pentsatutako literaturaz berbetan. Iratxe Retolaza irakaslearen bulegoan ari da galderei erantzuten, tarteka gaitik aldeniduz, lotura duten kontuak solasaldira ekarriz, berriz hariari helduz. Bai, irakasle honek hipertestua hitz egiten du.

Esperimentuak egiteko momentua


Umeak taka-taka batekin oinez hasten direnean nola, halaxe hasi ziren literatura digitaleko lehenbiziko obrak sortzen Borràsen esanetan. Irakurleari bide diferenteak eskaintzen zizkioten istorioak ziren aurreneko ziberliteratura testuak. “Noski, hori ez da ‘zure abentura bizi ezazu’ erara idatzitako liburu haien translazio ariketa besterik”. Baina apurka-apurka ausartago jokatu dute idazleek, begiekin irakurtzeko literaturatik jauzia egin dute, zentzumen gehiagoren arreta eskatzen duten obrak sortzen hasi dira. Ikus-entzunezko inputak, adibidez, ez dira arrotzak ziberliteratura egiten duten artistentzat. Ezta irakurlearen leitzeko erritmoa manipulatzeko ere: “Badago fundazionaltzat jotzen den testu bat, Stuart Moulthrop estatubatuarrak idatzia, hiru segundoro aldatzen dena, eta zu sekulako ezinegonarekin zaude, dena irakurri nahian. Irakurleari tentsio moduko bat eragiten dio, irakurketa-ordena aldatu egiten delako, eta oraindik ez dauzkalako erreminta kritikoak errealtate berri hori ulertu ahal izateko”.

Esperimentazio fasean dago literatura digitala eta hala egongo da bolada luze batean, Borràsen ustez. Pentsa bestela, eza gutzen dugun liburu-ereduak zenbat urteko garapena behar izan zuen aurreneko obra kanonikoak erditzeko. Dante, Shakespeare eta Homero digitalak urrun daude. Idazleek aztertu beharko dute medio berriek zein aukera eskaintzen dizkieten istorioak kontatzeko, probak egin, mila aldiz erori zaldi numerikotik, animalia bezatu eta eredu bat

HERMENEA




Goiko argazkian Laura Borràs, Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea. Beheko irudian berriz, Lluís Calvo eta Pedro Valdeolmillosen *Isopoema*.



nagusitu arte. “Handi pentsatzeko momentu polita da hau” dio Borràsek. “*Think big*, ingelesez esaten den moduan: Internet kolaborazioa da, partekatzea. Beraz, bilatu pertsona egokiak buruan daukazun ideia hori egiteko”.

Zenbait esperimentu ziberliterario

- **Holopoesia:** Holografiak erabiliz hiru dimentsioko poemak osatzea da diziplina honen funtsa. Eduardo Kac brasildarrak jorratu du poesia eredu hori modu esperimentalean. Haren lanen berri zehatzagoa www.ekac.org webgunean.
- **Konputagailuz Lagundutako Poesia:** Poema batekin aurrera egin ezinda dabilzan idazleentzat sortutako softwarea da, hitzak esparru semantikoen arabera gomendatzen dituen (www.motorhueso.net/pac).
- **Poesia molekularra:** Isaías Herrero bezalako idazleek lantzen dute. Testu-tipologia ugari uztartzen dira poesia molekularrean eta irakurlea ez da gehiago hartzaile huts: hitzetan, soinuetan eta irudietan nabigatuz “*wreader*” bihurtzen da, “idazkurle”, alegia.



Bi lagun Eduardo Kac-en holopoema bat “irakurtzen”.

Testu hutsaz gain bestelako osagaiak ere baditu pantailarako pentsatutako literaturak; horregatik, diziplina diferenteetako sortzaileen partaidetza beharko du

Zineman gaur egun dagoena izan liteke literaturan datorrenaren eredu. Obrek egile kolektiboa izatea, alegia. Testua idatziko duen idazlea bai, baina programatzaileak ere beharko baitira, eta musikariak, bideo sortzaileak. Zernahi. “Deena Larsenek, adibidez, testua idazten du, baina musika beste lagun batekin egin du. Eta testuaren egilea kontuan hartzen da, baina baita programazioarena eta musikarena ere”.

Ziberliteratura katalanez

Liburuak *L'hora quieta* zuen izena, Maria Dolors Farrések idatzi zuen eta Interneten irakurgai jarri 2003an. Sarean ahoz aho funtzionatzen hasi zen, blogez blog zabaltzen, 2007an Sant Jordi sariko finalista bihurtzeraino. Duela bi urte publikatu zen paperean Proa argitaletxearen eskutik, *El monestir de l'amor secret* titulu berria jantzita. Literatura katalana sarean bizi-bizi dagoela erakusten du nobela historiko horren ibilbideak. Argitaletxeek gertutik jarraitzen dute blogosfera, egile berrien, ahots freskoen, obra ausarten bila. Eta pantailatik leitzen duen irakurlearen pentsatuta idatzitako obrak ere ugaritzen ari dira.

Borràsek bi adibide eskaini ditu: aurrenekoa, Lluís Calvok eta Pedro Valdeolmillosek osatutako *Isopoema* (www.epimone.net/pieces/isopoema/index.html helbidean irakur daiteke); poema bat hartu eta irakurleare-

kin elkar-eragina sortzeko interfazea diseinatu diote sortzaileek. Hiru dimentsioko agertoki moduko bat ikusten du erabiltzaileak, lauki bat, hutsik; eta saguarekin botoi batean klikatuta poesia-lerro bat eskatzen du. Ekranaren goiko aldetik erortzen dira hitzak eta lebitatzen geratzen dira laukiaren gainean. Beste lerro bat. Baina oraingoan buelta emanda azaltzen da eta zuzen jartzeko hitzetan klik egin behar. Azkarregi eginez gero, beste botoi bat agertuko da, “*impaciència*” hitzarekin. Irakurtze-erritmoarekin esperimentatzen du Isopoemak eta papererako pentsatutako poema batekin interpretazio digital ugari izan ditzakeela erakusten du, testua bideojoko baten antzeko zerbait bihurtzen.

Bigarren adibidea Anton Ferreten *Retorn a la Comallega* narrazioa da (www.salnitre.com/retornalacomallega). Istorioa txat bateko elkarrizketa batekin hasten da, eta idatzi ahala leitzen du irakurleak pantailan: Comallega izeneko herrira doa pertsonaietako bat. Herrialde Katalanetako zein txokotan dagoen ikusteko Google Mapsen klik egin ahalko du erabiltzaileak, baita udalaren webgunea bisitatu ere... nahiz eta Comallega ez den benetan existitzen. Istorioa nabigagarria da parte batzuetan; beste batzuetan, egileak jarritako erritmoan leitzen da; eta erabat barneratzen du Interneteko idazkeraren estiloa: emotikonoak, laburdurak...

Esperimentuak dira oraindik, baina kontuan hartzekoa da katalana bezalako hizkuntza gutxiagotu bateko idazleek ekin diotela esparru horri ere. Euskaraz ez da antzeko biderik urratu —edo, urratu bada, lerrook idazten dituenak ez ditu ezagutzen—, eta pena da, aukera interesgarriak eskaintzen baititu sareak, mota honetako proiektuen bidez diziplina ugaritako sortzaileak elkartzeko. ■

Irratia

Axa Mixa: umeak uhinetako izar

“Dena umeentzat, baina umerik gabe” esaldiaz laburbil daiteke umeentzat egin den irratigintza luzaro gobernatu duen joera. Baina duela lau urte, Bilboko Tas Tas Irrati Librean, Axa Mixa irratsaioa agertu zen, haurrek haurrentzat egindako programa.

ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

Argazkia: Axa Mixa

ASKO DIRA gosaldur bitartean telebistari so dauden umeak eta beste hainbeste gurasoen gogoko dituzten irratsaioak esne epelarekin batera entzun behar izaten dituztenak. Ohitura horiek saihestu nahian, bestelako eskaintza prestatzen hasi ziren Antonella Fornoni, Begoña Mariscal, Catherine Verbgruggen eta Paloma Migliaccio. “Gure ustez, gosariaren panorama ez zen batere ona. Bestalde, amak izateaz gain, umeekin zerikusia duten beste hainbat arlotan (hezkuntza, hedabideak) ere lan egiten dugu, hau da, egoeraz sobera jabetuta geunden. Eta umeek gosaltzerakoan beste aukera bat izan zezaten, beraiek egindako irratsaioa antolatzea otu zitzaigun”, dio Mariscalek. Hura izan zen Axa Mixaren abiapuntua. Irratsaioa Bilboko Tas Tas Irrati Librean entzun daiteke –baita Arroza Sareari esker Gasteizko Hala Bedin eta Iruñeko Eguzki Irratian ere– lanegunetan, goizeko zortzietatik zortzi eta erdiak arte; asteburuetan, berriz, hamarretan dago entzungai.

Telebista, edota beraien aburuz oso ageriboak ziren goizeko irratsaioak saihestea ez zen, baina, irratsaioa egiterakoan finkatu zuten helburu bakarra: euskararekiko grina eta erabilpena sustatzea eta Bilbon diren beste kulturak ezagutaraztea dira beste biak.

“Kontuan izan behar da” dio Migliacciok, “hemen toki askotako haurrak daudela eta beraien kulturak hedatzeko gunea ere sortu nahi izan genuen. Hau da, euskara ez diren beste hizkuntzei ere garrantzia eman nahi genien”. Bilbon, egun, 25 hizkuntza baino gehiago erabiltzen dira: “Guk ez dugu ezer asmatu; hor daude hizkuntza horiek guztiak. Hain baliotsua den aniztasun hori agertu nahi izan dugu irratsaioan. Arabiera, errusiera, aimara, ketsua, galegoa, frantsesa... guztiak agertu izan dira Axa Mixan azken lau urte-



Grabaketak egitea da umeek gustukoak duten zeregina, Axa Mixa irratsaioaren arduradunen esanetan.

tan. Nahi dugu umeek oinarritzko esaldiak, agurrak eta zenbakiak ezagut ditzaten; gauza sinpleak. Kultura asko direla jakin dezaten”, azaldu du Verbgruggenek.

Euskararen ezagupena eta erabilpena sustatzea helburu du Axa Mixak. “Askotan, umeek eskolarekin lotzen dute euskara, beste asignatura bat bailitzan. Umeak, Bilbo aldean behintzat, testuinguru erdaldunean bizi dira. Batzuk kanpotik etorriak edo kanpotik etorritako familietan jaioak direlako; beste

batzuek, hemengoak izanda ere, guraso erdal-dunak dituztelako. Ez dakite eskolakoak ez diren gaiak buruz berba egiten; ez dute ama hizkuntzan beste trebetasunik. Ikasgelan lantzen ez dituzten gaiak azaltzen ez dakite. Zaila egiten zaie eskolan ikusi ez dutenaz (sentimenduak, esaterako) naturaltasunez berba egitea eta geuk aukera eman nahi diegu”.

4 eta 12 urte bitarteko umeek proposatzen dituzte edukiak, eta gero lan taldeak horri guztiari forma ematen dio. Irratsaio bakoitzak gai bat dauka. Pailazoak, haurren idoloak, musika, oporrak, jolasak, zelan egiten duten lo, kirolak, etxeko animaliak, meditazioa, zigorrak eta sariak, tresna elektronikoa, ospakizunak eta jaiak dira jorratu dituztenetako batzuk. Askotarikoak dira horiek plaza-ratzeko erak ere: ipuinak, txisteak, asmakizunak, iritziak, elkarriketak eta musika erabiltzen dituzte saioetan. Umeek txisteak eta asmakizunak asmatzen eta kontatzen dituzte, baita elkarriketak egin ere. “Erabiltzen duten logika oso bitxia da; ez da, jakina, helduok dugun bera. Polita da ikustea zelako galderak egiten dituzten edota horiek egiteko duten ordena. Behin, talde batek pailazo bat elkarriketatu zuen, eta lehenengo galdera izan zen ea ezkontuta zegoen. Beste batean, suhiltzaileei sirena zelan jotzen zuten galdetu zieten”, dio, barrezka, Verbgruggenek. Grabaketa asko estudioan bertan egin izan badituzte ere, kalea eta eskola dira ohiko eszenatokiak. Bizkaia osoko eskoletan egonak dira, baita Arabako hainbatetan ere. Atzerria ahaztu barik: Belgikan, Katalunian, Txekian, Espainian eta Galizian ere badute Axa Mixaren berri. Lau urte hauetan mila ume baino gehiagok hartu dute parte irratsaioan.

Euskara da irratsaioaren hizkuntza nagusia. Badira beti euskaraz egiten diren kon-

tuak, aurkezpenak, kasu. Beste hizkuntzekin egin ohi duten bezala, gauza sinpleak dira, ulertzeko errazak, gutxien dakitenek ere euskararekiko jarrera baikorra har dezaten. Umeek eginiko ia gauza guztiak ere euskaraz izaten dira.

Irratsaioaren arduradunen esanetan, grabaketak egitea da umeek gogokoen duten zeregina. Sareari esker, irratsaioak entzungai daude nahi duten orduan eta, garrantzitsuenak, nahi duten herrian. “Oso politak izan dira umeek aitita-amamei egin dizkieten elkarriketak, atzokoaz eta gaurkoaz mintzatuz”. Bestalde, Asian edota Amerikan bizi diren familiakoek ere irratsaioak entzutea badute. Horregatik ezin bazterrean utzi beste kulturak eta hizkuntzak: Hego Amerikako ipuinak, Errumaniako kantak, Magrebeko ohiturak...

Eskolekin lan egiten dute programako kideek, eta, ahal den neurrian, irakasleekin adosten dituzte hainbat gauza, programazioekin bat egiteko. Curriculumak dakartzan baloreak lantzeko, esaterako, tresna egokia da irratia. Bizkaiko Gurasoen Elkarteak (BIGE) bere gain hartu du eskolekiko harremanak bideratzea.

Tas Tas Irrati Librearen webgunean ez ezik, irratsaioaren blogean (<http://axamixa.blogspot.com>) ere entzun daiteke saioa. Astero jartzen dute zerbait blog horretan: batzuetan ipuinak, beste batzuetan elkarriketak... Gauza laburrak izan ohi dira, edozein momentutan entzun edo erabil daitezkeenak, bai etxean bai eskolan.

Eta Axa Mixa egiten dutenen seme-alabak hazi diren heinean, zabalagoa bihurtu da hartu nahi duten adin-tarteak. Izan ere, irratsaioak berak bere seme-alabak erditu ditu: Mikamada, jaioberriei buruz diharduen irratsaioa, eta gazteei begira egiten den Nahaste Borraste. Tas Tasen adin guztikoek baitute leku. ■

4 eta 12 urte bitarteko umeek proposatzen dituzte saioko edukiak, eta gero lan taldeak horri guztiari forma ematen dio

ogiaren egia
*Denda berritu dugu!
Zatoz eta bidaiatu
iraganeko okindegi
xarmant batera*

Galparsoro
OKINDEGIA

*Antzinako ogiaren
kabia bihurtu baitugu
denda zahar berria*

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

iRUnAZARRa
TaBERNa • JaTeXea

Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)
T 948 22 51 67 · info@irunazarra.es · www.irunazarra.org

Liburuak


KRITIKA

Ahardikeriak.

Marie Darrieussecq (itzul.: Joxan Elozegi).
Alberdania, 2004 (jatorrizkoa: 1996).
15 euro.

Hemeroteka

Aritz Galarraga



Emeki zerri

HIZKUNTZAK ematen badio literaturari nongotartasuna, Marie Darrieussecq, bistan da, ez da euskal literatura. Aitzitik, euskarak hartzen duen geografiaren baitan sortua baitugu, Euskal Herriko idazletzat har genezake lasai antzean Baionan jaiotakoa. Hartara, eta estatistikarako, hemen aletu nahi dugun *Ahardikeriak* hau litzateke inoiz gehien saldutako euskal, ezen ez euskarazko, literatur lana. Milioitik gora ale, hogeita hamarretik gora hizkuntzatan (Joxan Elosegik, egoki oso, gurean). Paraliteraturarekin amaitzeko, esan dezagun, bestelako idazle euskal herritarrekin alderatuta zortea-edo izan duela, beste bi eleberri ere badituela euskaraz, *Tom bil* da eta *Herria*. Detailea ahaztu gabe: frantsesez idazten duen euskal herritarra dugu Darrieussecq.


Harira: tamainako arrakasta lortu zuen eleberriak emazte bat du protagonista, ahardi bilakatzen doana, emeki zerri. Metamorfosiaren ideia ez gutxi landua da, bai, lurrin-denda bateko langileak, joan etorrian, gaztaina-ekurrez beteriko zelai zabal gozo batean bukatzeraino. Tartean baina, bezeroen apetak ase beharko ditu, ez disgustura, nagusi, senargaiarenak, kiloak hartzen joango da, ugatzak, tonu arroxka bat azalean. Eta istorioak hamaika ditu, hola-hala idatzian jarriko dituenak, aitormen gisara, zerri idazkera betean, eta idazkera zerri askoan.

Hemen marrazten direnen artean bik ematen dute atentzioa, besteren ondotik: batetik emaztearen egoerak, bestetik gizartearenak. Hasteko, gauzak garbi, halakoxea da hemengo emea: "Katearen zuzendariak eskuineko bularra zuen alde batean, eta kontratua bestean". Eta jardun erdiko lanaldia du gutxieneko soldataren ia erdia jasota, basa da zibilizazioa, itxurakeriak blaitzen du dena, politikoek bezperako arrainaren usaina dute, beltzak apenas dabilta kalean. Emazteak eta gizarteak, biek ala biek dute, geurea izan gabe, geure egunerokoarekin antza izugarrikoa. Ai, baina umorea, batez ere umorea, eleberria hasibuka ziprztintzen duena, ez polita, politikoki okerra, tarteka ateratzen dizu ez barrea, irriño gaizto bat, begian sartzen dizu hatza, eta egiten du ondo atsegin irakurketa ustez xaloa.

Ez da hau, nire uste makalean, Darrieussecqen lanik onena, luze gabe euskaraz dituen beste biek gaintzen dutela iruditzen zait. Baina beste bi horiek ez duten bertute bat du honek, irribarreaz gainera: interpretaziorako tarte zabala uzten duela, ateak zabalik, literatura onaren seinale omen dena. ■

Clara Janés-en poemak euskaratuta

EIZIEk argitaratu berri du Clara Janés poetak jatorriz espainolez idatzitako *Emblemas* liburuak, *Enblemak* tituluarekin. Historia bitxiko itzulpena da: Juan Mari Lekuona zenak euskaratu zuen lagun batzuei oparitzeko, eta liburuan bertan jarri zituen poemak euskaraz, eskuz. Jatorrizko itzulpen horren faksimilea dakar azal gogorreko edizio dotore honek, baina baita poema berak makinaz jota ere. Beraz, literatur itzulpena izateaz gain, Lekuonari, EIZIEko lehenengo lehendakari izan zenari, omenaldia ere egin nahi izan dio itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen elkarrekin, Eusko Jaurlaritzaren eta Oiarzungo Udalaren laguntzarekin. ■



Enblemak.
Clara Janés.
EIZIE.
137 orrialde.

'Egan' aldizkariaren zenbaki berria


Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek argitaratzen du *Egan* aldizkaria, literatura gaiak ardatz, eduki ugari bilduz. 2010eko azken zenbaki honetan lau artikulu nabarmendu dituzte: Piarres Aintziartek Leon Pochelu apaiz eta idazleari buruz eskribitutakoa; Pako Sodupe kontagintza ardatz hartuta osatu duen saiakera mardula; Juan Martin Elexpuruk azken urteotan hainbeste zeresan eman duten Iruña-Veleiako aferaz egingako hiru artikulu; eta Jose Mari Urkiak Jose Maria Aycarten omenez idatzitakoa. Baina badaude eduki gehiago ere. Berbarako, Iñaki Zubeldia Fernando Morillo idazleari buruz aritu da, gazteek haren lanak irakurtzeko duten grina aztertuz. ■



Egan.
Batzen artean.
Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea.
278 orrialde. 18 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Bi (2).
Mursego.
Bidehuts.
Iraupena: 49'46".
10 euro.

Ilunetan babestutako piztia, harribitxia

MAITE ARROITAJAUREGI eibartarrak Anari, Lisabö, Ibon Rodriguez (Eten) eta bestelakoekin txeloa jo izan du, baina Mursego proiektu pertsonal bezain bereziarekin buru-belarri dabil. Ia oharkabean hasi zen berak idatzitako piezak erakusten, eta ordutik ez da gelditu. Honako hau bigarren lana du. Txeloa jotzeko era ohiko eta ezohikoak uztartzen ditu; eta bestelako instrumentuak ere jolaskide ditu: casio teklatua, marakak, txirula... Baita loop edo

errepikapenak egiten dituen aparailu bat ere. Azken horrekin, pertsona bakarrak kanta baten hasieratik abiatuta orkestratxo bat sortu eta batzeko aukera duela erakusten digu. Diskoan malenkonia, umorea, pop-a, ukitu arabiarra eta Gainsbourgen pareko xuxur-lak batzen ditu modu entretenigarri eta askean.

www.myspace.com/mursego

Mursego

«Musikak nire lekuan mantentzen nau, zentzua daukan zerbait egiten ari naizela sentitzen dut»

Zuk, loop-ak eginda, do it yourself (zuk zeuk egizu) argiena errealitate bihurtzen duzu?

Bakarrik lan egiteko tresna egokia da eta, gainera, konposatzeko orduan aukera asko ematen dizkizu. Dena den, niretzat DIY-a haratago dago, jarrera izan behar du. Norbere burua autogestionatzea ez da erraza; ni neu hainbeste urteren bueltan oraindik ere horretan nabil.

Musika jolasa al da zuretzat?

Momentu honetan beharra da, euskarri bat; musika egiteak eta jotzeak nire lekuan mantentzen nau, benetan zentzua daukan zerbait egiten ari naizela sentitzen dut.

Txeloa, casioa, loop-ak, theremina... Bada baztertzen duzun instrumenturik?

Tronpeta, tronpa, tronboia, steel gitarra, arpa eta bateria joko nituzke, ez dakit ordea.



Zure emanaldiak oso didaktikoak iruditzen zaizkit; abestiak nola eraikitzen dituzun ikus-entzun daiteke. Ados zaude?

Ez dut uste hori didaktikoa denik. Horrela egin behar izaten dut beste aukerarik ez daukadalako. Dena den, jende askok esan dit zuzeneko interesgarriagoa dela justu horrexegatik.

Hain exkakak al gara sukaldean? Errezetak belarrira abestu behar izateko premia daukagu?

Sukaldari trebez inguratuta nago, atunzale amorratua naiz eta ondo jatea plazera da niretzat... Nola ez diot bada abesti bat egingo sukalde errejeta bati? Belarrira abesteko badago abesti egokiagorik...

Mursego pertsona bakarrak osatuko du beti? Saguzaharrak hobeto moldatzen dira bakarrik?

Hau proiektu pertsonala da, nire-nirea, nahiz eta batzuetan faltan botatzen dudan norbait ondoan izatea: hurrengo kontzertuetan *quest starring*ak izango dira. Saguzaharrak taldean bizi dira, ez legoke denontzat nahiko kobazulo bestela.

Erlojurik ez duzu inoiz erabiltzen?

Bai, lo ere erlojuarekin egiten dut, langilerion "rolex"-a daukat, casio bat. Txeloa jotzeko kentzen dut, zaratarik ez egiteko. ■

Ezpalak

JON TORNER

Dokumentalak.com, Interneteko euskal ekarpenik onena



TEKNOPATAREN TXOKOA blogak abiatutako Interneteko euskal ekarpenik onenak hautatzeko bozketan, ARGIAren multimedia ataleko Dokumentalen webguneak lortu du

boto gehien (66 bozka, %43). Lehendik sarean dauden euskarazko dokumentalak bildu eta ekoizleak euren lanak digitalizatzera bultzatzeko sortutako atala da hau. Bozketan Berriketan.info sare soziala geratu da bigarren lekuan, 58 botorekin (%38); Tokitan telebista hirugarrenean, 48rekin (%32); eta ARGIAren film laburren kanala laugarrenean 39rekin (26%).

Sustraiak-Erroak elkartearentzat Eusko Ikaskuntzaren ENE saria

EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA Euskal Herrikanpo bultzatzen duten elkarteei urtero Eusko Ikaskuntzak ematen dien ENE saria Sustraiak Erroak elkarteari eman diote aurtien. Aipatu erakundea 1981ean sortu zen eta boluntarioz osatua dago. Parisko Eskual Etxean du egoitza eta bertan euskara ikastaro, konferentzia, dantza eta antzerki tailerrez gain, Euskal Herriara bisitak antolatzen dituzte. Elkartearen presidente Iñigo Leturiak adierazi zuen saria “haize freskoa duen korronte” bat bezala hartu dutela eta horrek Parisen aurrera egiteko indar ematen diela, oraindik batzuetan harritu egiten baitu jendea euskaragatik interesatuta dagoela ikusteak.

Teresa del Valle EHuko Gizarte Antropologia katedradunak jaso du Berdintasunaren Emakunde Saria, Euskal Herriko mundu akademikoan berdintasunaren alorrean erreferente dela-eta. 73 urteko donostiarrak “lan handia egin du emakumeen errealtatearen ezagutzaren transmisioan, eta bereziki euskal emakumeen errealtatearen transmisioan”, Emakundeko zuzendari Maria Silvestreren esanetan. Besteak beste, antropologia feminista, antropologia politikoa, errituak, aldaketa soziala eta denbora kategoriak aztertu izan ditu Del Vallek.

Txotxongiloak Igandero izeneko zikloa egingo da apirilaren 10era bitartean Bilboko Campos antzokiko Kupula aretoan. Hamabi konpainiak 34 emanaldi eskainiko dituzte igandero. Taldeetatik lau dira Euskal Herrikoak eta guztien helburua euren lana ikusleei ezagutzera ematea da.

Cristobal Balentziaga

(Getaria, 1895 - Alacant, 1972) jostun eta moda sortzailearen omenezko museoa ekainaren hasieran irekiko dute. Getariako (Gipuzkoa) Berroeta-Aldamar jauregira itsatsitako eraikina amaituta dago, baina museografia eta barneko lanak amaitzea falta da. Victoria Garriga eta Toño Foraster artikektoek azaldu dute argiaren, koloreen eta ikus-entzunezkoen erabilerak garrantzia izango duela areto bakoitzaren nortasunean.



WIKIPEDIA

● **Ilaski Serrano ETB1eko ‘Mihiluze’ saioko aurkezleak Aizu! aldizkarian:** : «Egun batean bat hasten da saioa aurkezten eta hurrengoan bestea, Kike Amonarri-zek eta biok oso pentsatuta daukagu hori. Bi gizon badaude, normalean adinekoa hasten da aurrena, errespetuagatik. Halako batean konturatu ginen Kike hasten zela beti, logika horri jarraiki, errespetuagatik, nortasunagatik, izenagatik... Orduan erabaki genuen txandaka egitea, erakustea posible dela saioa neskak hastea, nahiz eta gizonezkoa zaharragoa eta jantziagoa izan. Izan ere, gure arteko harremana horrelakoa da, maila berean gabiltza, hemen ez dago laguntzailerik».

● **Noemi Viana koreografo gasteiztarrek Garan** «Dantza munduan, Euskal Herrian dena egiteko dagoela sentitzen dut. Alde batetik, ona da hori, gauza pila egin ditzakezulako, baina, bestetik, ez dago dantzaren kulturarik, jendea ez da mugitzen, ez dago azpiegiturarik... Ikusten dut Euskal Herrian sortzea oso zaila dela; batzuetan muga bat da bertan lan egitea (...) Niretzat ez da salto handia dantzari izatetik koreografo izatera doana, erabat naturala da. Kontua da koreografo legez erabaki potoloagoak hartu behar dituzula, eta erantzukizun handiagoa duzula, pieza zuk zeuk sortua baita».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

JON TORNER

Burdin-barrak irribarrez

Preso nago. Mikel Orbegozo.
Ataramiñe (2010). 72 orrialde, koloretan.


MIKEL ORBEGOZO donostiarra Mansillako espetxean dago preso, Leonen (Espainia). 2005eko otsailan atxilotu zuten, eta kartzeletako bizimodua ongi eza gutzen du, espainiarretakoa bereziki. *Preso nago* komikia bizimodu horren isla da. Barneko sentipenez mintzo da Orbegozo, ziega barruan beste dimentsio bat hartzen duten eguneroko kontu txikiez, presoaren aurkako estrategia errepresiboaz... ironiaz eta umore puntuaz betiere, “ezkutatu nahi den errealitate gordin honen aurrean, bizitzari irrifar batekin aurre egiteak apur bat libreago bihurtzen gaituelako”, berak dioen moduan.

Katxeoak, otorduak, ziega aldaketak, denboraren joan-etorri motela, eta kapitulu mardulagoetan, funtzionarioek Madrildik jasotzen dituzten agindu “berriak”, euskal preso politikoen aurkako “fotofobia” eta euren senideek jasan beharreko ukimen bidezko miaketak dituzte ardatz Orbegozoren istorio laburrek. Hizpide dituen gaiak delikatuak dira, baina ia beti lortzen du irribarretxo sortzea. Barre algararik ez, baina irri txikia bai. Horren adibide ditugu errepresioaz mintzo zaion *Txapitas* lagunari erreflexioaren aldeko mezuarekin erantzuten dioneko pasartea, eta atxilotuen argazkiak telebistan ikusi eta haserretu egin den ertzainarena, berak gogor lan egin duela-ko argazkiak txosna eta kale kantoietatik kentzen.



Ilustrazioak, komikiaren osagai potenteenak ez izan arren, txukunak dira, eta zertzelada politekoak: aho eta begi keinu adierazkorrek, mugimenduak, paisaiak... Presondegiak ilun imajinatzen ditugu guk, baina Orbegozoren marrazkiak alai eta koloretsuak dira; tonu beltz eta grisak apenas ikusten dira. Gainera, ez ditu pertsonaiak karikaturizatzen. Aurpegi igualak dituzte kartzeletako funtzionarioek eta presoek, borobil borobilak. Sor daitekeen tentsioa arintzen du horrek, egoera goxotu, eta hasiera batean behintzat, pertsonaia guztiak maila berean jarri.

Beste kontutxo bat. Ataramiñek copyleft lizentziarekin argitaratu du komikia: “Bere edukiak zabaldu, aipatu eta hitzez hitz kopiatu daitezke, osorik zein zatika, edozein medio erabiliz eta edozein helburu lortzeko, ohar hau mantentzen eta jatorria aipatzen den bitartean”. ■



baga-biga

MUSIKA
BULEGO
INTEGRALA

MUSIKAN
BERRIENA



ESNE BELTZA
NOA
LP



UNE
AKUSTIKOAK
ETA BESTELAKO
UNEAK



GATIBU
ZUZENEAN
BIZITZEKO
GOGOA
DVD+CD



TRASTORNA2
ESCAPANDO



SUTURA
SUEÑOS
PODRIDOS



ZAIN
XXI. MENDEKO
PIRATAK



KORRONTZI
& OINKARI
INFERNUKO
HAUSPOA
DVD



KHERAU
MUNDUAN
ORTOZIK




ROCKAINA
EN EL AIRE

baga-biga musika ideiak
telef. 618 072 076 / 026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarrizen umorea

Arrantzan

Joxe Mari hamar urteko alabarekin atera da arrantzara. Etxera itzultzean, ama berehala ohartu da alabak aurpegia hazita dakarrela:

- Alabatxo! Zer gertatu zaizu, ordea?
- Eltxo batengatik izan da, ama.
- Hozka egin al dizu, bada?
- Ez dio denborarik eman. Aitak arraunarekin akabatu du.

Beti berandu

Enpresako nagusiak langile bati:

- Ea, Xabier. Gaur ere berandu iritsi zara, eta bosgarren aldia da aste honetan. Zer ondorio atera behar dut honetatik?
- Erraza! Gaur, ostirala dela!



Soluzioa



CAMINOS


3D estrategia jolasa



Noruntz eta nola iritsi?

Zein da bidea?

Taularen bi alde lotzeko bidea egiten asmatu beharko duzu kolore bereko eta forma desberdineko piezekin. Horretarako zure aurkariak bidean jartzen dizkizun oztopoak gainditu beharko dituzu.



Luditoys

ESKAERAK: ☎ 943 36 86 61 | info@luditoys.com

29€

ARGIAREN
HARPIDEDUNENTZAT
24€

Osasuna

JABIER AGIRRE

Azukrea altu eduki dezakezu,
konturatu ere egin gabe

BIZTANLEEN %4k ez daki 2 motako diabetesa, intsulinaren mendekoa ez dena, daukala. Eta oraindik gehiago dira “diabetesaren aurreko” esaten zaion egoeran daudela ez dakitenak. Azken egoera horretan dagoen pertsona ez dago gaixo oraindik modu kronikoan, baina odoleko azukre-mailak normala baino pixka bat goraxeago daude. Hori gertatzen denean, litekeena da une horretan gehikuntza txikia dena luzarora diabetes kliniko bilakatzea. Hala ere, ikerketa guztiek frogatzen duten bezala, garaiz detektatzen bada eta bizi-estiloa hobetzen bada, gaixotasunaren progresioa eten daiteke. Horrexegatik, komeni da adi ibiltzea.



SHRINKTHEPLANET-WEIGHTLOSS.COM

Ibiltzeak odolaren azukre-maila egonkortzen laguntzen du.

iten dutenek joera nabarmenagoa izango dute 2 tipoko diabetesa —helduen diabetesa ere esaten zaio— jasateko. Arrisku faktore horietako bat edo gehiago izanez gero, zoaz medikuarengana, hark aztertu zaitzan.

● **Proba simple bat.** Analisi bat nahikoa da odoleko glukosa-maila (gluzemia) normaletik gora dagoela jakiteko. Medikuek aginduko dizu baraurik joateko analisi horretara, goizean goiz. Atzemandako glukosamailaren arabera emango du medikuak bere diagnostikoa: normala, diabetesaren aurrekoa, edo baita diabetesa ere.

... eta tratatzen hasi

Oraindik ere diabetesik ez, baina zure gorputza behar baino glukosa gehiago pilatzen hasi bada, bizi-estiloa aldatzea komeni zaizu egoerak okerrera egin ez dezan. Kasurik gehienetan, gorputz-pisua %5-10 gutxituz azukre-gorakada arin hori kontrolatzea posible dela frogatu da. Beraz, saia zaitez kirola egiten eta elikadura zaintzen. Egutero 30 minutuz ariketa fisikoa egitea nahikoa izango litzateke zure odoleko glukosamaila egonkortu eta onera ekartzeko. Aski duzu horretarako pauso ari-nean paseotxo bat ematea. Jatekoari dagokionez, gantz edo koipe gutxiko eta barazki eta fruta ugariko jan-neurria egitea da garrantzitsuenak.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Loditasunari aurre egin
goserik gabe

Gabonetan egindako gehiegikeriez damu bazara oraindik, interesatzen zaizu honakoa: Danimarkako ikertzaile talde batek, Europako 772 familiaren elikadura ohiturak aztertu eta gero, loditasuna prebenitzeko nahiz argaltzeko dietarik onena zein den esan du. Goserik eduki gabe, jakina. Bestela, zelan justifikatu Europar Batasunak ikerketarako eman dituen ia 15 milioi euroak?

<http://ttiki.com/21584> (Gaztelaniaz)

Hiesaren aurkako txertoa,
irabazi ezinezko gudua

Ondo jakina da hiesaren kontrako tratamenduetan oso aurrerapauso handiak egin direla. Ez dugu, haatik, gaitzari aurre egiteko txertorik lortu. EHUren Biofisika Unitatean helburu horrekin ari dira lanean. Hurbiltxoago gaude, baina...

<http://ttiki.com/21585> (Euskaraz)

Biodibertsitatea galtzea,
gure osasunarentzat kaltea

AEBetan egindako ikerketa baten ondorioa da izenburuan irakurri duzuenak. Burutu duten zientzialarien esanetan, animalia eta landare espezieak desagertzeak atea zabaltzen du agente patogenoak kopuru handiagoe-tan ugaltzeko.

<http://ttiki.com/21586> (Frantsesez)

Unai Brea

38 ► **argia** 2011KO URTARRILAREN 16A

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Tantaitik txarara

BEREZKOAK, naturalak edo teknikoki jatorrizkoak deitzen diren basoak ziren hasieran. Gero nekazaritzaren eta abeltzaintzaren etorriak murriztu egin zituen. Ondorengo industrien beren premietara makurtu zituzten: su-egurretarako, ikatzetarako, zuretarako... Batez ere burdingintzak eta ontzigintzak lotzen zituzten basoen emanak. Industria hauek sustatu eta zabaldu ahala behar-beharrezko zuten egurretik nahi adina izateko, basoaren erabilera arautzera eta hauen jabeekin hartu eta emanak lotzera egin zuten.

Burdinarena eta itsasontziena, bi industriok eragin izan dute eta mugatu gure basoen izaera. Txara eta baso-tantaiak edo baso-lizarrak ziren nagusi.

Tantaien edo lizarren basoak jatorrizko basoaren ondorengo naturalak dira. Oso-osorik utzitako zuhaitzak dira bertan eta etxegintzarako eta batez ere itsasontzigintzarako behar ziren. Asko jota, inausketa ari-

nen bat eta bakantzeak egingo ziren bertan. Ehundik gora urte aise zituzten zuhaitzak banaka botako ziren eta hark utzitako tartean berriak aldatu.

Txara hitzak zuhaixka esan nahi du eta txara edo txaradi, zuhaixkez osatutako basoari deitzen zaio. Zein espeziez osatua baino zein formako landareak dituen adierazten du: zuhaitzik ez, landare txikiak. Txaran landareak urte gutxiro moztzen ziren. Diametro txikiko enbortxoak etekin handia ematen zuen orduan: iduritarako, saskigintzarako materiala, eraikuntzarako-eta arba jendea, su-egurretarako, abereen bazka... Tarteka arraseko mozketa egin eta basoa erabat soiltzen zen. Gero moztutako ipurdietatik sortutako altsumaz eta pujez berrituko zen. Kimu berri hauek hazi ahal izateko, orde, abererik ez zen bazkatu behar baso horietan; hauek ez ziren tuntun memelo, eta punta berritik punta berrira gozo jardungo zuten.

JAKOBA ERREKONDO



Estraperloa

Dagoenerako ezin da tabakoa (*Nicotiana tabacum*) nonahi erre. Erretzearen aurkako borrokak hartu duen bideak nora garamatzen ez dakigu. Eta badaezpadako lanak abiatu dituen jenderik bada. Marihuanarekin (*Cannabis indica*) zabaldua den bezala, batzuk tabakoa erein, landu eta etxean ondu, lehortu eta erretzeko prestatzen hasiak dira. Estraperloaren sasoia da.

Lore-lan
Lurez S. Coop.

Lorezaintza proiektuak
Mantentze-zerbitzua

Tel. 609 42 45 47 · Faxe: 943 79 49 12 • lorelan@euskalnet.net

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Anne Frank errusiarra

WWW.WORDPRESS.COM

SAN PETERSBURGO, 1941-1944. Alemaniarrek garai hartan Leningrad zeritzon hiria setiatu zuten eta blokeoak 872 egun iraun zuen. Tarte horretan milioitik gora pertsona hil ziren hirian, %90 goseak jota.

Tatiana Savitxeva haurra, familia txirokoa izaki, hamar urte zituela hasi zen sobietar armadarentzat lanean: lubakiak zulatzen, barrikadak prestatzen eta teilatuak zaintzen, etsaiak su-bonbak jaurtitzen zituenen lehenbailehen itzaltzeko. Egun batez, Nina ahizpa lanera joan eta ez zen itzuli. Senitartekoez hilda zegoela pentsatu zuten eta amak Ninaren ohar-liburuxka bat eman zion Tatianari, ahizpa nagusiagoa gogoan izan zezan.

1941eko abenduaren 28an, minak muntatzeko fabrikatik bueltan, Zhenia ahizpa hotzak hil zuen eta orduan erabili zuen lehenengoz Tatianak beste ahizparen liburuxka. Guztira bederatzirorritxo erabiliko zituen hauxe idazteko:

1. Zhenia 1941eko abenduaren 28an hil zen, 12:30etan.
2. Amona 1942ko urtarrilaren 25ean hil zen, arratsaldeko 3:00etan.
3. Leka 1942ko martxoaren 17an hil zen, goizaldeko 5:00etan.
4. Osaba Vasia 1942ko apirilaren 13an hil zen, gauerdia eta bi ordu geroago.
5. Osaba Lesha 1942ko maiatzaren 10ean, arratsaldeko 4:00etan.
6. Ama 1942ko maiatzaren 13an, goizeko 7:30ean.
7. Savitxetarrak hil egin dira.
8. Denak hil dira.
9. Tanya besterik ez da geratu.

Tatiana 1942ko abuztuan erreskatatu zuten beste 140 hurrekin batera, eta Krasni Bor herriko



Ezkerrean Tatiana Savitxeva (senitartekoentzat Tanya). Alboan, haurrak Leningradeko setioaren lekukotza jaso zuen egunkari labur eta gordina. Eskuizkribu originala San Petersburgoko Historia Museoa dago egun, eta tamaina handiko kopiak neskatoaren omenezko monumentua osatzen du hirian bertan.

ospitalera eraman zuten osa zedin. Baina ikusmena galduta eta elikadura urritasunari aurre egin ezinda, hesteetako tuberkulosiak jota hil zen 1944ko uztailaren lehenen, 14 urte zituela.

Askaso Leningradeko biztanle askok xehetasunez beteriko egunkari luzeagoak idatziko zituzten, Amsterdameko "atzeko" etxean Anne Frankek egin bezala. Baina nazien setioaren negu gogorretan, altzariekin batera, liburuak ere erre zituzten berotasun pixka bat lortzearren. Tatiana Savitxevak errusieraz idatzitako 60 hitzak ez zituzten inoiz argitaratu. Baina Nurembergeko epaiketetan frogagisa erabili zituzten.

Arrastoak

Nondik datorkio izena nikotinari?

JEAN NICOT DE VILLEMAIN izeneko frantziar diplomazialaria bere herriko enbaxadore zen Portugalen XVI. mendean erdialdean. 1550ean, tabako haziz betetako poltsatxo bidali zion Katalina Mediciri Parisko gortera. Substantziak arrakasta handia izan

zuen Europako goi klaseetan eta, hala, nahiz eta tabakoa Amerikatik espainiarrek ekarri zuten eta tabako hostoetatik lortzen den alkaloidea lehenengoz 1828ra arte isolatu ez arren, nikotinari berau zabaltzen lagundu zuen enbaxadorearen izena jarri zioten.



WWW.DEFINICIONABC.COM

Luke Uribe-Etxebarria

«ETA oker dago gatazka politikoa ahaztuko dugula uste badu, EAJk ez du ahaztuko»

Beasain, 1965. Informazio Zientzietan lizentziatua eta Europar Zuzenbidean diplomatua. EAJko GBBko kidea eta EAEko legebiltzarkidea. Asteasun zinegotzia da. Bertan bizi da. Urte zaharra bukatzeaz elkarriketatu genuen, ETAren agiria edozein unetan iritsi zitekeelakoan.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

ETAren agiria egonarriz itxaron du jendarteak. Egoerak elkarriketa hau egiterakoan eragina du. Nola ikusten duzu zuk egungo egoera politikoa?

ETAk badaki bere jarrera argitu behar duela lehenbailehen. Gernika-ko agiriaren eta Bruselako adierazpenaren sinatzaileek hori eskatu zioten, ETAk hori adierazi zuen azken agiriari. Beraz, agiria etorriko da, ziur. Egoera hau bizi izan dugu lehen. Urtarrilerako zela esaten zen eta irailean heldu zen. Udan gertatu zen bezala orain, inportantea etortzea da. Noski, inportantea agiriaren edukia da.

Nolako agiria espero duzu zuk?

Biolentziaren estrategia behin betiko lurperatuko duena. Baina, errealista izanda, inportantea abian den prozesua atzera buelta ez izatea da, hau da, iraileko agirian ETAk hartu zuen bideak atzera bueltarik ez izatea. Prozesu hau ezberdina da, ETari gelditzeko eskatzen diona ezker abertzalea baita. Orain arte gizarteari entzungor egin dio, baina ez dut uste ezker abertzaleko jendea bizkarra emango dionik.

Artean, Paris inguruan izan zen nor-tasun agirien lapurreta egotzi diote ETari. Nola baloratzen duzu hori?

Puntu beltz bat bezala. Espero



dezagun ETAk ukatu ez duen hornidura alorrera mugatu izatea. Noski, erakunde armatu bat hornitzen denean zertarako den galdetu behar diogu gure buruari. Atentatuak egiteko bada, gaizki. ETA militarrek su-etenak iragarri dituenen ez du inoiz aho batez hartu, orduan, baliteke, talde batzuek hori ez onartzea. Geroak esango du.

Horiek horrela, Rubalcakak nola balora dezake ETaren agiri berria?

Rubalcaba eta Madrilgo Gobernua oso kontzienteak dira ezker abertzalea ematen ari den pausoen garrantziaz. Beren iturriak dituzte, ezker abertzalea kezkatua ikusten dute egin duen apustuaren aurrean. Baina Moncloan oso gogoan daukate Barajasko aireportuaren T-4an gertatu zena. Zapaterok inozoarena egin zuen bezperan. Hori gobernu-buru batek ez du erraz ahazten.

Otegi ETA biolentzia uzteko prest dagoela esan du bien bitartean.

Hori ETAk berak esan zuen iraillean. Otegiaren hitzak testuinguru horretan hartu behar dira. Osagai inportantea da. Ezker abertzalearen prozesua aldebakarrekola dela baieztatzen duena, hau da, ez dio beste eragileei –Espainiako Gobernuari bereziki– trukean ezer eskatzen.

Bake edo normalizazio prozesuan bagina bezala hitz egiten duzu. Hala al da?

Bai. Inoiz ez gara hutsetik abiatzen. Halere, ez dezagun ahaztu Brian Currinek esandakoa: ETaren kezka haxe da: berea bukatzen den bitartean, bakegintza lantzen den bitartean –presoen eta biktimen arazoa

konpondu bitartean– normalizazio politikoa etenda geratzea. ETaren tzat, 50 urteren ondoren, ordainetan “legalizazioa” besterik ez jostzea drama da. ETAk normalizazio politikoa ekarriko duen alderdien arteko mahaia nahi du gutxienez.

EAJk zer dio horren aurrean?

Guk ibilbide bat daukagu, ez gara hutsetik hasiko. Hor daude Lizarra-Garaziko Akordioa, Estatutu Berria, Kontsulta [Ibarretxe lehendakari zenekoa], Loiolako Adierazpena...

“Ezker abertzaleak ‘ETaren agiririk ez badago, guk ez ditugu estatutu berriak aurkeztuko’ esatea zeukan, baina jarrera hori baztertu dute”

EAJk normalizazio politikoari ekingo dio ETA izan edo ez izan, Euskadiren eta Espainiaren artean gatazka politikoa egon baitago, ETA bera jaio aurretik zegoena. Guk ETARI hau esaten diogu: kontuz, zu ez zara alderdien mahaiaren zaindaria, elkarriketak doazen arabera bueltatzearekin mehatxatuko duena. ETAk gatazka politikoa ahaztuko dugula uste badu, oker dago, jakin dezan EAJk ez duela ahaztuko.

Ezker abertzalea maiatzeko hauteskundeetan egoteko modua ikusten duzu?

Oraingo koiunturari begiratzen badiogu, ezker abertzaleak bere *time* dauka: ETaren agiriak eta alderdi

berriaren estatutu berriak baldintzatua. Ezker abertzaleak “ETaren agiririk ez badago, guk ez ditugu estatutu berriak aurkeztuko” esatea zeukan, baina jarrera hori baztertu du. Hauteskundeetan egon nahi duela esan du. Hartara, ezin izango da zalantzan jarri beren estatutuen izaera erabat demokratikoa denik. Estatuko botere judizialek lanak izango dituzte juridikoki eta formalki berauek atzera botatzeko.

Orain arte hori egin dute.

Bai, baina, ezker abertzalearen oraingo jarrera ez da lehengoa. Ezker abertzalea ETaren ekintzaren aurka agertzeko prest dago, alderdi berriaren estatutuetan esplizituki idatzita. Eta beste arlo bat ere dago, politikoa...

Ezker abertzalea lege kanpo uzteko erabaki politikoak hartu izan direla esan nahi nuen. Edo ez?

Bai. ETAk A edo B esan arren, ezker abertzaleak eskubide osoa duela hauteskundeetan egoteko esan nahi dut. Baldin eta ezker abertzaleak dioena gauzatzen badu, eskubide osoa dauka, tatxarrik gabeko estatutuak izango baitira. Nik arlo politikoa aipatzean, Moncloan dauden mesfidantzarekin eta kalkulu elektoralarekin lotu ditut. PSOE egoera larrian dago maiatzeko hauteskundeen aurrean. Egoera ekonomikoa dela-eta PP gogorki ari da eta Zapatero kili-kolo dago. Ez bakarrik hori, autonomia erkidegoko presidentek eta hiri askotako alkateek presio garbia egingo dute Zapaterorengan: “Nahiko ate itxita daukagu, saiatu bakearen atea irekitzen” esango diote.

Euskal politika besterik da, ordea.

Euskadiri begira, politikoki, kurioski, Patxi Lopezi ez zaio komeni ezker abertzalea presente egotea, kontraesan handiak dauzka PSOEak. Euskadirentzako ona dena Patxi Lopezentzat kaltegarria bada, horrek esan nahi du PSEk arazo handia daukala. Ageri da gehiengo soziala ez dagoela bere atzean.

Zer iritzi duzu Eusko Jaurlaritzak azken bi urteotan egindako politikaz? Gobernu honek hanka motz hasi



Esakura ezazu teorikoa 5 egunetan edozein gidabaimenerako

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es



LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
perifazioak
balorazioak
etxebizitzak
proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña

Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

"ETArentzat, 50 urteren ondoren, ordainetan 'legalizazioa' besterik ez jasotzea drama da. ETAk normalizazio politikoa ekarriko duen alderdien arteko mahaia nahi du gutxienez".

zuen bere ibilbidea eta hanka motz bukatuko du. Nuñez Freijo galiziarak "hauteskontzien kontra osatzen diren gobernuak hauteskontzietan amaitzen dira" esan zuen Galiziari zegokionez, eta esaldi hori aproposa da hemengo ulertzeko. PPK erabat baldintzatzen du Patxi Lopezen gobernuaren jardura.

Horiek horrela, EAJ abstenitu da Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen bozketan. Zergatik ez kontra?

Guk emendakin kopuru dezente aurkeztu genuen. Gobernuak eta ekonomia sailburuak gure emendakinak oso ondo landuak zeudela onartu zuten. Horiek horrela ere, Patxi Lopezen gobernuak hiru emendakin onartu dizkigu soilik, horietako bat tekniko; guztira 80.000 euroko balorea duten hiru emendakin izan dira. Probokazioa izan da. Gobernu sozialistari halere, komeni zitzaion guk kontrako

"Euskadirentzako ona dena Patxi Lopezentzat kaltegarria bada, horrek esan nahi du PSEk arazo handia daukala"

botoa ematea. Batzuetan arerioa-rengandik probokazioa gomendio bezala hartu behar da. Gainera, gure jarreraren enplegu politikaren eskumenak eragin du, gure ekimenen ondorioz etorri dena. Horregatik abstenitu egin gara.

Madrilgo gobernuarekin sinatutako akordioak ere eragiten du horretan. Ez.

Han aurrekontuen alde egin zenuten, hemen, berriz, abstenitu zarete.

Madriren bi arrazoi izan dira: eskumen batzuk lortu dira, eta falta diren bestetzuk gauzatzeko programa ere landu dugu, inbertsioak tarte. Baina, bake eta normalizazio politikaren gaia ere mahai gainean



egon da. Oso puntu garrantzizkoa, benetan.

Hori ez duzue modu esplizituan esan.

Gure adierazpen publikoetan esan dugu, baina ez dago inolako papeirik. Aznarren garaian nahiz Zapateroren aurreko gobernuarekin EAJ prest azaldu zen bide hori urratzeko, eta orain ere bai. Madrilgo azken elkarrizketan bake eta normalizazio gaia egon da mahai gainean. Puntu hori izan da elkarrizketen arrazoietako bat, eta ezker abertzaleak hori eskertu du. Ezker abertzaleari interesatzen baitzaio Zapaterok jarraitzea. Raxoik irabaziko balu, eta areago gehiago osoarekin, prozesuak etenaldi bat izan dezakeelako. Ezker abertzaleak ez du publikoki hori horrela esaten, baina eskertzen du Zapateroekin akordatu duguna.

Zein dira Madriren, programan landu dituzuen beste eskumenak?

2011ko lehendabiziko sei hilabete-tan eskumen batzuk transferituak izango dira, eta bigarren seihilekoan

bestetzuk. Horien artean inportantea Gizarte Segurantzaren kutxaren kudeaketa da.

Ramon Jauregik hori ematea independentziarako bidea zabaltzea zela esan zuen garai batean.

Beharbada. Baina ezin dezakegu halako jarrera politikorik onartu. Baldin eta Gernikako Estatutua pak-tua bada, ezin dugu onartu bi alde-arte adostutako itun bati buruzko halako posizio politikorik. Ituna bada, bete behar da. Bestela, Justizia ministro ohi Fernando Ledesma esaten zuena bermatuko dugu: "Gernikako Estatutua urruti joan zen", esan zuen. Ezin da hori onartu. Hori da, besteak beste, azken hamar urteetan Euskadiren eta Espainiaren artean beste harreman marko bat behar dugula baieztatzen duena. Eta hori lantzen ari gara, garrantia guztiekin gauzatu dadin. ■

argia.com Udal eta Foru hauteskondeez eta EITBri buruz elkarrizketatuaren ikuspuntuak.

Gasteizko haurrak

Parkean elkartuko gara euskaraz aritzeko

Josebe Blancorena izan da “ideia zorua”. Hedabideen bitartez egin zuen deialdia: “Gure seme-alabei Gasteizen euskaraz jolasteko aukera oparitu nahi diegulako bil gaitezen azaroaren 6an”. Hamahiru familia elkartu ziren.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

ARGIA



Haurrek ez dute beti ama hizkuntzan jolasteko aukerarik.

JOSEBE BLANCOK eta Luismi Atxak hiru urteko alaba dute, Maddi. D ereduko eskolan dago izena emanda. Hala ere, nekez hitz egin dezake euskaraz albokoekin, gaztelaniaz egiten baitiote ia denek. Lakua auzoan bizi bada ere, Alde Zaharrera doa eskolara eta hiru haur euskaldun ditu ikaskide. Etorkinak dira asko. Jatorriaren arabera, gaztelaniaz, arabieraz, euskaraz edo woloferaz egiten dute. Elkartzen direnean berriaz, D ereduko haurtxoek gaztelaniaz egiten dute. Sozializazio garai bete-betean dago Maddi txikia, elebakarra da eta beraz, gaztelania hitzunez inguratuta ez dago eroso, ez ikastetxean ezta kalean ere.

Josebe Blanco antzuolarrak (Gipuzkoa) helburu bat du buruan: haurrak euskaraz bizi ahal izatea askatasun eta erosotasun osoz. Maddik bi haur euskaldun topatu zituen auzoko jolastokian eta ia elkar ezagutzeko astirik gabe amek telefonoak trukatu zituzten, tartean behin elkarrekin geratzeko. Hurrengo pausoa hedabideen eta ahoz ahokoaren bidez deialdia zabaltzea izan zen, alegia, Gasteizko ume euskaldunak eskola orduetatik kanpo, jolaserako, elkartzea.

17 haur jolasean

Lehenengo deialdi hartara, urtebeteko umetik hasi eta bederatzirte-

ko umera arte, 17 haur euskaldun elkartu ziren, gurasoekin. Gehienak bi eta lau urte bitartekoak ziren. Josebe Blanco oso pozik zegoen lortutako emaitzarekin, ez baitzekien inor azalduko zenik ere. Elkartutako familiak Gasteizko hainbat auzotakoak dira eta haur denak D ereduan ikasten ari badira ere, hainbat ikastetxetakoak dira, hala nola, Armentia, Olabide eta Landazuri ikastolakoak.

Ume horiek guztiek euskaraz ikasten dute, ama hizkuntza euskara dute eta gurasoak euskaldunak. “Jolas parkean euskaldunak elkartzeko beharra daukazue?”, galdetu diogu Blancori: “Zuei, agian, mar-

Ekimenera hurbildu diren gurasoen esanak

Lidia Beitiak 2 eta 4 urteko haurrak ditu eta Lakua auzoan ezagutu zuen Josebe Blanco bere haurraren kin. Bai bata eta bai bestea konturatu ziren euskaraz ari zirela eta horrelaxe hurbildu ziren elkarrengana. Halako batean Blancok auzoetan euskaraz aritzeko umeak biltzearen ideia aipatu zion. Ekimena ondo iruditu zitzaion Beitiari, baina bazuen beldur pixka bat. Euskaldunak banatu nahian zebiltzala-edo pentsa zezakeen jendeak. Oraindik ez du erreakzio txarrik jaso.

Beitiaren bi txikiek euskaraz egiten dute etxean eta ikastolan ere bai. Eskolan euskaraz egiten duteneko baieztapen hori bere neurrira eraman du gero haurren amak, ikaskideek beti eta guztiek ez baitute euskaraz egiten. Ondarroako senideekin ere euskaraz egiteko aukera dute, aldiz, Gasteizen ez, "Gasteiz erdalduna da. Orain arte bezala, egunaren %20an-edo euskaraz aritzeko aukera bazuten, aukera hori zer edo zer gehiago izatea lortu nahi dugu. Nagusiak egiten direnean beraiek erabakiko dute zer nahi duten egin".

Gorka Etxaberi eta Arrate Saenz de Urturiri lagun

batzuek ohartarazi zioten Josebe Blancok *Berrian* idatzi zuen gutunaz. Hura irakurri eta Blancorengana hurbildu ziren. Alde Zaharrean bizi dira Etxabe eta Saenz de Urturi, 2 urteko Ekain haurra dute eta bigarrena bidean da. Etxabek adierazi digunez, "umearekin parkera joan eta kontrako bidean ibiltzearen sentsazioa izaten dut". Esan nahi du bera haurrari euskaraz ari zaiola eta gainerakoak gaztelaniaz ari direla. Beste kontu bat ere esan digu: "Gurasoek sumatzen dutenean bereak ez diren haurrak euskaraz ari direla euskaraz egiten diete, baina beste kontu bat da gurasoak elkartzen garenean zein hizkuntzatan egiten dugun". Etxaberen ustez, Gasteizko ekimen honen helburua umeek beraien artean euskaraz egitea da, baina horrez gain, ingurune euskalduna eskaini nahi zaie. Horretarako, jakina, pauso bat litzateke dakiten gurasoek euskaraz egitea beraien artean.

Ekainen gurasoen ustez, ekimenak ez du beste misteriorik, baina hasi berriak dira eta 18 bat familiak elkar ezagutu dute. Meritu handikotzat dute hainbeste familia elkartzea eta badakite dena egiteko dutela.

tzianoa irudituko zaizue egiten ari garena, ume euskaldunak bereizi eta jolasteko elkartu, baina guk nahi dugun gauza bakarra, beste haurrek beren hizkuntzan duten bezalaxe, gurek euskaraz aritzeko aukera izatea da". Ideia izan zuenean lagun batzuekin komentatu zuen eta galdetu zioten ea ziur zegoen egin behar zuenaz, ez ote zitekeen izan arrazista, snob edo sabinista. Blancok aitortu du beldurra bazuela, eta horrelako deialdi bat egitea tristea iruditzen zaiola, "baina momentuz ez dut beste biderik aurkitu", auzoka ume euskaldunen sarea antolatzeari baino.

Eskolaren mugak eta zailtasunak gogorarazi ditu Maddiren amak. Badira D eredu naturala eskaintzen duten ikastetxeak Gasteizen. Bertako haur denak euskaldunak direla ziurtatzen dute, gero beti hala ez den arren. Talde txikiak izaten dira eta gelako ratioetan

Hurrengo deialdia urtarrilaren 15erako egin dute. Guraso batzuen soroan zuhaitzak landatzera joango dira

ez dira sartzen; bertan behera geratu ohi dira gela horiek. Ghettoak sortzeko arriskua behin eta berriz jartzen da mahai gainean. Beste joera bat da, haur euskaldunak gaztelania hiztunekin eta beste hizkuntzetako hiztunekin nahastea, ume euskaldunek ikaskideen artean euskara zabal dezaten. Blancok argi dauka: "Hizkuntza politikek lortzen ez dutena nola lortuko dute bada txikitxoek?". Haur euskaldunak batzen badira batzen direlako eta batzen ez badira batzen ez direlako, ez da erraza euskara erabiltzeko aukerak sortzeko bideak aurkitzen. Hori bai, ama hizkuntza euskara dutenak gaztela-

nia hiztunekin egonda "gure haurrak beti galtzaile".

Zuhaitzak landatzera

Badirudi guraso euskaldun gasteiztarrek ez dituztela euskaldunekiko sakabanatuta izan nahi haurrak. Azaroaren 6az gain, hil horren 27rako bigarren deialdia egin zuten eta hiru familia gehiago agertu ziren. Bloga ireki dute (amahizkuntza.blogariak.net) familiak harremantetan jartzeko eta berriak erakartzeko. Bestelako informazioa gehitzen ere hasiak dira. Esate baterako, Gasteizen euskarazko zerbitzua eskaintzen duten denda, enpresa eta bestelakoen zerrenda osatzen hasi dira.


Hurrengo deialdia urtarrilaren 15erako egin dute. Guraso batzuen soroan zuhaitzak landatzera joango dira. Blancok esan digunez, helburua ez da erraldoia, poliki-poliki hasi dira eta ikusiko dute ekimen honek zein tankera hartzen duen. ■

Babeslea: Hondarribiko Udala



Osa Euskaltzaindiko idazkariorde

ERRAMUN OSA (1964) Ikastolen Konfederazioak, Elkarrek eta Elhuyarrek lankidetzan garatu duten Ikasargia egitasmoaren arduraduna izan da orain arte. Hemendik aurrera Euskaltzaindiko idazkariorde izango da.



EUSKALTZAINDIA

Bertol Arrietaren tesia zuzenketa automatikoaz

BERTOL ARRIETA Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak ikasketa automatikoko teknikak aztertu eta probatzea izan du helburu tesian. Euskararen sintaxian eta zuzenketa automatikoan aurrerapausoak ematen ahalegindu da. Ondokoa da tesiaren izenburua: *Azaleko sintaxiaren tratamendua ikasketa automatikoko tekniken bidez: euskarako kateen eta perpausen identifikazioa eta bere erabilera koma-zuzentzaile batean*. Iazko uztailaren 27an aurkeztu zuen eta Iñaki Alegria eta Arantza Diaz de Ilarraza izan ziren zuzendariak.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Langabezia: larrialdi egoera

2010. urtea 178.972 langaberekin amaitu zen Hego Euskal Herrian, 2009an baino %6 gehiago. Bizkaiak errekorra gainditu du, 5.634 langabe gehiago izan baititu, ia %8 gehiago. Arabak 1.171 enplegugabe gehiago izan ditu, %6,10 gehiago. Nafarroan 2.358 lagun gehiago geratu dira lanik gabe eta langabeziak %5,80 egin du gora. Gipuzkoa izan zen iaz langabezia gutxien igo zen herrialdea, 955 langabe gehiago izan ziren, %2,48ko igoera. Zenbaki absolutuetan, Bizkaiak 76.129 langabe zituen urtea amaitu zenean, Nafarroak 43.011, Gipuzkoak 39.449, eta Arabak 20.383. 2010ean Hego Euskal Herriko langabezia tasa Espainiako Estatukoa baino heren bat gehiago hazi zen. Espainian 176.470 lagun gehiago daude langabeturik eta paroak %4,5 egin du gora. Emakumeak eta gazteak dira langabeziak eta ezegonkortasunak gehien eragin dien sektoreak.

Estatistika hotzek ez digute galarazi behar ikustea langabe bakoitzaren atzean dagoen tragedia pertsonal eta familiarra. Zifra horiek benetako larrialdi egoera izan behar lukete gizartearentzat eta arduradun politiko, sozial eta sindikalentzat. Nazioarteko "merkatariak" sustatzen ari diren erreformek —lan arloan, pentsioetan eta abar—, beraiek utzitako kredituak interes tipo altuekin itzultzea ziurtatzeko besterik ez dute balio. Euren negozioa baino ez dute bilatzen. Politika ekonomiko alternatiboak behar dira, krisiaren kostua, bera sortu duen benetako arduradunaren —banka handiaren— gain jartzeko, eta inbertsio produktiboak sustatzeko. Noizko zerga berezi bat banka, finantza entitate eta fortuna handientzako? Politika fiskal berria behar da, gehien dutenak zergape-tu, paradisu fiskalak ezabatu eta iruzurra egiten duten sektore liberalei mozo-rra kentzeko (kirolari profesionalak, notarioak, abokatu handiak, erregista-tzaileak, medikuak, dentistak, arkitektoak...). Kredituen iturria ireki behar da, batez ere enpresa txikiei eta autonomoei; larrialdi egoera ezabatu arte.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Iñigo Fernandezek Euskara eta Publizitatea blogean esanak:

"Busuu.com izena duen 'hizkuntzak ikasteko sare sozial' batek kanpaina egin berri du bere burua ezagutzera emateko. Kanpaina itxuraz oso ederra eta alaia da, baina hondoan, tristetia eta oso gaizki planteatutakoa, nire ustez.

Sormen deigarria du iragarkiak, edonori irriparra pizteko modukoa, baina komunikazio estrategia zeharo okerra, penagarria.

Iragarkian esaten digute ikasteko bussu hizkuntza. Baina Busuu.com sare sozialean ezin da bussu hizkuntza ikasi. Eta ez hori bakarrik, bere burua aurkezteko hiltorian dagoen hizkuntza batean oinarritutako kanpaina egin duen sare sozial horretan, hizkuntza hegemonikoak baino ez dira i(ra)kaste: inglesa, espainiera, portugesa, italiera, alemaniera eta errusiera".

Txerra Rodriguezek Autopsiarako frogak liburuz (Koldo Izagirre)

Garaigoikoa blogean esanak: "Ados nago berak esaten dituen gauza askorekin. Baina guztiekin ez.

Kritika latzak egiten ditu, ezker zein eskuma: abertzaletasunari, inperialismo linguistikoari, hizkuntza politikei eta abarri. Euskaltasuna babes-ten du, oso ondo azaldu barik zer den (lerro artean ulertzen da ondo).

Eta autodeterminazio linguistiko-a aldarrikatzen du. Baina... zelan gauzatzen da autodeterminazio linguistikoa egunerokoan? Pertsona bezala? Herri bezala? Euskaltzale bezala? Ez du hori azaltzen, nahiz eta zantzuak ematen dituen.

Eta, azkenik, zalantza bat geratu zait: zer da euskalgintza bulegotua? Nortzuk osatzen dute(gu)?".

Kepa Larreak Diario de Noticiasen esanak:

"Esaten zen deabruak ere ezin izan zuela euskara ikasi Euskal Herrian egon ostean. Eta horri lotuta deabruaren morroien hizkuntza zela esatera ere ailegatu izan ziren batzuk".

Denok trenera, hurrengo geltokia bakea da eta

ETA-REN AGIRIA esperotakoa izan da, gutxienez edukiari dagokionez: Gernikako eta Bruselako adierazpenetan eskatutakoak onartu ditu eta kito. Labur eta zehatz, eskertzekoa ere badena. Halako testu zehatz guztietan gertatzen den moduan, denak adierazten du berba bakoitzaren atzean sukalde lan handia dagoela. Baina prozesu honek aurrera jarraitu ahal izateko eskaera garrantzitsuena agirian dago: su-eten iraunkor eta orokorra, nazioarteko komunitateak egiaztatzen ahal izango duena. Horixe eskatu zitzaion eta horixe eman du.

Hortik aurrera irakurketa posibleen eremura sartzen gara. ETak bai esaten du irtenbidea zertan oinarritu behar den —lurraldetasuna eta autodeterminazioa—, baina ez du baldintzarik jarzen, ez prozedura, ez su-etena bera ezta helburu politikoei begira ere. Areago, argi dio gatazka konpontzeko tresnak elkarriketa eta negoziazioa direla eta prozesu demokratikoa koordinada horietan eman behar dela. Ez du esaten Mitchell Printzipioekin bat egiten duenik, baina hurbiltzen da bere esanetara.

Berdintsu gerta liteke Gernika eta Bruselako adierazpenei begira. Agiriak ez du esaten bi testu horiekin bat egiten duenik. Zehazten du Bruselan eta Gernikan nazioarteko pertsona esanguratsuek eta eragile sozial ugari azpimarratzen dutela gatazkak irtenbide justu eta demokratikoa behar duela, eta ETak bat egiten duela horrekin (gaztelaniaz zehatzagoa da, *coincide*). Baina argi, ez du esaten ados dagoenik adierazpenarekin, gatazka konpondu beharrarekin baizik.

Gernikako Adierazpenean, su-eten iraunkor eta egiaztagarria eskatzen zaio ETari, eta hori garrantzitsua da zalantza barik. Baina, aldi berean, eskatzen zitzaion neurri



horiek borroka armatua desagertze bidean jarriko lukeen prozesu baten barruan kokatzeko. Ez dakigu hau hala den edo ez, baina agirian dio su-eten hau dela “behin betiko konponbiderako prozesuarekiko eta konfrontazio armatuaren amaierarekiko ETak duen konpromiso irmoa” eta horrek bai adieraz dezake hizkuntz hurbilketa bat Gernikan eskatzen zaion borroka armatuaren amaiera horrekiko norabidean. Zalantzarik gabe, ez da samurra, une batetik aurrera dena baita interpretatiboa eta interpretazioak bakoitzak duen gogo, sinesmen eta informazioaren arabera egiten baitira.

Sarri badirudi ahaztu egiten dela, baina orain arte ere ETA su-etenean zegoen, hori bai, oraingo hau egiaztagarria izango da eta gainera orokorra. Eta ikusi beharko da orokor horrek bere jardun osoari eragiten dion, esate baterako *zerga iraultzailea*-ri edo hornitze lanei.

**Agiri honen ondoren
prozesuak jarrai dezake,
trena abian da berriz, eta
orain jendea igoarazi behar
dugu gainera, hurrengo
geltokia bakea da eta**

ETak oso urrats garrantzitsua eman du, historian inoiz ez bezalakoa eta hori da baloratu beharrekoa. Azken hilabeteotan, gutxitan moduko kanpaina mediatikoa egin da agiri honen inguruan, eta horren ondorioz, iritzi publikoari begira, ETaren desagertpena ez den edozer hutsala dela irudikatzea lortu da. Ba ozen esan behar da ezetz, hau urrats indartsua da eta norabide egokian gainera. Hobe ETak bihar bertan borroka armatuaren amaiera iragarriko balu, baina errealitatea ez da hori, eta ongi etorriak izan bitez norabide egokian doazen urrats guztiak. Nahi dena esango da, baina duela urtebete inork gutxi espero zuen egoera hau. Orain eskuartean dugu, orain apurka bakera eramango gaituen prozesu hau elikatzea dagokigu, herritar, gizarte eragile eta politikariei.

Ohikoak entzungo dira, hau ez dela nahikoa, ETak badakiela zer esan behar duen eta gisakoak. Ados, bai, baina orain PSOEren txanda da, orain pilota bere teilatuan ere bada. Eta EAJrentzat ere ordua da bestelako konpromezua eta bultzada erakusteko. Agiri honen ondoren prozesuak jarrai dezake, trenabian da berriz, eta orain jendea igoarazi behar dugu gainera, hurrengo geltokia bakea da eta.

PELLO ZUBIRIA

'Fracking' gasa dator, erregai fosil zikin eta suntsitzailea

Komunikabide handi batzuek saldu dutenez, teknologia berriei esker orain arte baino gas natural askoz gehiago edukiko dugu erregai. "Iraultza isila" ei dakar. Aldiz, gas "berri" hori idokitzen ari diren lekuetan ikasi dute gas berria eskuratzea ez dela batere merkea, ez garbia... eta ez isila. Liskarrak eragingo ditu gure inguruan laster.

IKASI HITZ BERRI HAU: *FRACKING*. Ez duzu hiztegia aurkituko. Aldiz, Wikipedian esplikatuko dizute *hydraulic fracturing* (urez haustea edo apurketa hidraulikoa) kontzeptuaren laburdura dela. *Fracking* entzun eta irakurriko dugu sarritan gaurgero. Hasteko, munduaren martxa esplikatzeko duten hedabide nagusiek erabaki dutelako *frackinga* dagoeneko "iraultza isila" eragiten ari dela.

El País egunkariak orri biz saritu berri du aurkikuntza: Santiago Carcar kazetariak sinatutako kronikak *Una revolución a todo gas* darama lerroburu.

Iraultza baino gutxiago ez litzateke, egia osoa balitz lehen paragrafoan iragarri duena. "Munduko gas inportatzaileetan lehenak, AEB, laster esportatzaile izango dira; Boliviako gasaren mende bizi den Argentinak di-da batean erreserbak bikoiztu egin dituela dio; gas naturalaren prezioak hasi dira petrolioarenetik bereizi eta jaisten (...). Gutxitan ikusi da halako aldaketa handirik negozio batean, eta gutxitan entzun da hain kontserbadorea den petrolioaren industriako buruzagi bat aipatzen 'iraultza'. BPko Tony Haywardek 'iraultza isila' deitu dio gasaren negozioan gertatzen ari denari".

Teknologiaren aurrerapenak ekarri omen du jauzia. Lehen eskuraezina zen gasa orain usatu genezake.

Eskistoetan, harea bituminosoetan eta ikatzetan datzan gasaz ari dira, gas ez ohikoaz. Orain Exxon, BP, ENI, Sheel edo Statoil bezalako konpainiak milaka milioi ari dira inbertitzen balizko gas hobietan, teknika berriei posible omen dela hura ateratzea.

"Teknika berriak" gutxi zehaztu ditu Carcarrek *El País*en, agian saldu dioten mirariaren distirak txunditurik. "Teknika oso berriei (horizontalean zulatzea, ura eta produktu kimikoak presiopean injektatzea da *frackinga*) apurtu eta zukututakoan harkaitzak altxorra askatzen du: eskuragarriena zen hidrokarburoa ahiu zen lekuan gas berria ateratzen da. Hobi agortuak, hilak, gaztetu egiten dira". Teknikaren mirakulua.

Geopolitikan ere izango omen du eragina iraultza honek. AEBek mende baterako erreserbak dauzkaitela diote. Eta Europan, loteria egokitu bide zaie Poloniari, Suediari, Alemaniari, Hungariari eta Austriari, akaso Frantziari ere bai. Espainian Ebro ibarrean eta Pirinioetan ari omen dira lehen ahaleginak egiten.

Herrialde erregai saltzaileen eta erosleen arteko harremanak laster alda litezke, konpainia handi horiek uste dutenez. Errusia batek Europako ipar eta erdi aldeetara gasa esportatzen daukan nagusitasuna hein batean galdu omen lezake. Afrikako

Argazia Marcellus Protests mugimenduak sinatzen du Interneten: neska gazte bat manifestazioan "Ez zultu Marcellus harkaitzak" dioen afixarekin. Argazkigileak lortu du esaldi hori uztartzea leku berean Carnegie museoak daukan erakusketaren beste honekin: "Eguneroko eromena". *Peak Oil* mugimenduaren teorikoek iragarria zuten erregai konbentzionalak (petrolio, gas eta ikatz eskuraerazanak) urritzen hasi ahala, korporazio handiek gogor ekingo ziotela eskuragaitzagoak eta produktzio askoz zikin eta arriskugarriagoak direnak idokitzeari. *Fracking* gasa ildo horretatik dator. Propagandistek dioten arren teknologia berriek ahalbidetu dutela gas honen ustia-keta merkeago bihurtzea, kalkuluetatik kanpo uzten dituzte ingurumenean eta giza osasunean eragindako kalteak. Espainian Ebro ibarrean eta Pirinioetan bilatzen omen dute: guregandik hurbil akaso.

iparraldetik eta Persiar golkotik gasa Europaratzeko azpiegiturarako inbertsioak gelditu. Sonatrachen eta Gas Natural Fenosaren arteko liskarra bideratu ezinean dabilen Espainiari AEBetan irekitzen zaio orain gas iturri berria. Eta dena, omen, ugaria, merkea eta petrolio zein ikatz baino garbiagoa litzatekeen *fracking* gasari esker. Borobilegia ez ote egia izateko?

Txikizioak lana dakar

The Ecologist hilabetekari klasikoak azaroaren 30ean eskaini zuen *fracking* gasaren lorpen liluragarrien ifrentzua. Jim Wickens ibili da AEBetan gas berria ekoizten duten lurraldeetan, eta panorama beltza aurkitu zuen. Ikusitakoa bildu duen erreportajeari izenburuan ipini dio "AEBetan gas naturalaren bilaketak kutsadura eta gizarte barruko liskarrak ekarri ditu".

Pennsylvanian ibili da nagusiki, hango Marcellus Shale izeneko eskualde arbeldunean ari baitira konpainia handiak, Halliburton erraldoia buru, zundaketa eta zulaketa zoroan.

Konpainietako buruek aho batez deklaratu diote Jainkoaren oparia egokitu zaiola Pennsylvanian langabezia eta txirotasunez hiltzen ari zen eskualdeari. Erregaiz hain urri dabil-tzan AEBei gogotik lagunduko zaie



hemendik, urtean 3.000-4.000 zulo berri eginez muino eta ordokietan.

Milaka gas iturri berri horietakoren bat edo batzuk ondoan suertatu zaizkien herritarrak bisitatu ditugero Wiceknsek. Eta oso bestelako gauzak entzun dizkie.

Aurkitu ditu baserritarrak 2009a arte nahi adina ur zutenak etxerako bezala aziendentzako, orain botiletako ura kontsumitzera behartuak, bertako iturrietakoa erabili ezina delako: kolore zikina, usain latza... zundaketengatik inguru osoa kutsatu diete. Gainera, zulaketa etxe ondoan edo azpian tokatu zaionak, makinaren dardara nozitu behar du gau eta egun.

Inguruetan kamioi handien joan etorria etenik gabea da. Makinez

gain ura eta produktu kimikoak garraiatu behar dituzte. *Fracking* kontzeptuak harkaitza apurtzea esan nahi du, birrintzea, eta horretarako zundaketan ari diren mekanikak presiopean ura eta produktu kimikoak sartzen dituzte, harria lehertarazi eta gasa askatzeko.

Uraz gain zein produktu ordea? Inork ez daki. Halliburton eta beste konpainia handiek lortu dute sekretuan edukitzea orain arte, horretarako zantpatuz adierazpen askatasunaren, jakien segurtasunaren eta ingurumenaren aldeko gainerako legeak. "Sartzen den uraren %1 baino ez dira kimikoak", adierazi du industriaren bozeramaile batek. Beste teknikari batek, ordea, *The Ecologist* kalkulatu dio iturri bakoitzean

22 metro kubiko gai kimiko erabiltzen dela. Horrek esplikatzan du inguruko kutsadura, nekazaritza eta etxe bakan askotan bizitza bera ere ezinezko bihurtu dituen.

Kutsadura kimikoaz gain, etxe askotan erradiaktiboa nozitzen dute, zorupeko harkaitzak birrintzeak hori eragiten baitu, mineralak horretarako joera duenean. Kamioitzarren trafikoa handia, ateratako harriekin egindako betelanak... eskualdeko bizimodua arras aldatu da.

Herritar batzuek oztopatu nahi izan dute beren lurlean horrelakorik egitea. Eskubiderik gabe aurkitu dira. AEBetako legediak baimentzen du zoru azpiko lurra saldu eta erostea eta etxalde bat bere larre, iturri eta zuhaitzekin erosi zuten asko aurkitu dira oharkabean 20 metro behe-rago dagoen guztia Txinako edo Australiako konpainia batena dela. Hori gutxi balitz, Estatuak hala erabaki duenean, desjabetu egin dituzte zundaketak egiteko.

Baina osasunak edo ingurumenak jasaten dituen kalteez herritar batzuk dira bereziki minbera. Beste askok nahiago diote begiratu *fracking*ak eskualdeari ekarri dion onurari. Ostatuak beteta omen daude, komertzioak ere bai, kamioilariek lana daukate. Peoitzen badira lanpostuak... eta Pennsylvaniako eskualde hau lazki ari da nozitzen XXI. mendeko krisitzarra

*The Ecologist*eko kazetaria John Trallorekin ari zen solasean. *Fracking* gasaren kontrako mugimenduaren buruetakoa da. Kamioi bat pasatu da mantso etxe aurretik, gidaria biegi begira zetorren, leihotik eskua atera du eta tiro egiteko keinua egin die. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Etorkinak eta joakinak

Badirudi gure gizarte-joeren zenbait neurketetan (eusko barometro, soziometro eta abarretan) datu kezkagarri samarrak agertzen hasi direla, besteak beste, etorkinei buruzko jarreretan. Kopuruak ugaldtu ahala, krisia areagotu ahala... edozein aitzakia on da gure sentimendu abegitsuak ospintzen hasteko.

Hona hemen istorio argigarri bat: VII. mendean kaldearrek Pertsiatik bota zituzten Zoroastroren jarraitzaileak, parsiak, eta hauek Indiarra joan ziren babes bila. Iheslari haien buruak Indiako erregeari eskatu zion ostatu. Erregeak, erantzun gisa, bere ordezkariak bidali zizkion, baso bat esne ertz-ertzerraino betea zutela, oso kontuz isur ez zedin. Ez zekiten elkarren hizkuntzarik, baina parsi buruzagiak berehala ulertu zuen keinu haren esanahia. Indian jende asko bizi zen orduan ere, eta ez zegoen, nonbait, biztanle gehiagorentzat lekurik, edalontzian ere esne gehiago sartzen ez zen bezalaxe. Alegia, goxo eta leunki, Indiako erregeak adierazi zien ez zegoela beraientzat lekurik lurralde hartan. Orduan, parsi buruak, Indiako ordezkarien aurrean, azukre apur bat hartu eta kontu handiz esnetara bota omen zuen, kanpora ezer isuri gabe. Alegia, aditzera ematen zuen hinduen artean nahastuko zirela azukrea esnetan bezala. Keinu hura eraginkorra izan zen: parsiak Surat-en lehorreratzeko baimena jaso zuten eta, ordudanik, Indian bizi dira azukrea esnetan bezain gozo eta ezteki.

Istorio polita iruditzen zait, hartzaileon eta etorkinen jarrera ideala adierazten duelako. Guk ere hartuko bagenitu etorkinak halako leuntasunez, ziur asko beraiek errazago integratuko lirатеke gure artean, azukrea esnetan bezala. Baina, hasteko, alantbre-hesi, horma elektroniko, polizia eta era guztietako oztupo burokratikoekin hartzen baditugu, eta gero ere urruntasun eta mesfidantzaz begiratzen



DANI BLANCO

badiegu... nekez sentituko dira ongi etorriak gure artean.

Lehenik, bakoitzari dagokio etorkinenganako bere sentimendu eta aurreiritziak aztertzea. Gure ego mentalak, guztiok sare bakar baten osagaitzat hartu ordez, dualismoz jokatzan du normalean: ni-beste, gutarrak vs kanpotarrak, gure ongizateaz baliatzera etorriak... eta gure identitatearentzat mehatxu direnak. Baina ez al du gizakiak eskubiderik arrazoi ekonomiko, politiko edo sozialengatik (sexua, erlijioa eta abar medio) bere jaioterritik irten eta, ahal duen lekuan, bizimodu duinagoa bilatzeko? Hobe, noski, bakoitzak bere inguruan aski baliabide izango balu,

kanpora joan beharrik gabe! Baina garapen orekatua edo bizimodu tolerante eta baketsua herrialde guztietan lortzen ez den bitartean, beti izango da iheslaririk. Pentsatzen al dugu euskaldunok ezin garela joan munduan edonora, geure ogibidearen edo bizi-arnasaren bila, tokian tokikoei zerbait kentzen ari garelako?


Gizarte gisa, etorkinak ezagutzea dugu lehen eginbeharra: horrek gure kultura zabaltzea eskatzen du, eta lan pedagogiko handia egitea geure ikuspegiak zuzendu edo ñabartzeko. Hedabideek bi aldiz pentsatu beharko lukete zer albiste eman edo ez eman eta nola eman. Politikari batzuen jarrera pozoitsua da benetan, salagarria; eta besteak ere, zenbat aldiz ikusten ditugu herrialde bateko etorkinen elkarrekin bilduta, edo beraien ekitaldietan parte hartzen? Herritar guztioi bidalitako mezuak lirатеke horiek.

Euskaldunok ez genuke inoiz ahaztu behar luzaroan geu izan ginela 'joakinak' beste herrialde batzuetan (arrazoi ekonomikoengatik, edo gerra garaian eta ondoren arrazoi politikoengatik). Beraz, baditugu zorak etorkinekiko, eta men-debaldar zuri aberastu gisa, ez zor morallak bakarrik. ■

Hobe, noski, bakoitzak bere inguruan aski baliabide izango balu, kanpora joan beharrik gabe! Baina garapen orekatua edo bizimodu tolerante eta baketsua herrialde guztietan lortzen ez den bitartean, beti izango da iheslaririk

ASTE HONETAKO

zozketa



Ondarre Landetxea

Asteburu pasa
bi laguntentzat

Ondarre baserria
Segura GIPUZKOA

Tel.: 943 801 664

1



Tarpoon Urpekaritza

2 harpidedunentzat
"Discover Scuba" saiorako
bina sarrera

Kirol portua, A lokala - 7
Getxo BIZKAIA

www.divetarpooon.com

2




Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza,1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

3




Moroak gara behelaino artean?

Joseba Sarrionandia
2 liburu opari

Pamiela Argitaletxea
Agustindarren industrialdea,
Soltxate 6 kalea
Iruñea, NAFARROA

www.pamiela.com

4



Illimani

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2258. Argia)

IRIARTE

• Karmele Alvarez Arbe (Donostia)

SAUSTA

• Andoni Sarriegi Eskisabel (Beasain)

GUIKURI

• Andoni Alba Salaberria (Iruñea)

EGUTEGI + EUSKARRI

• Juan Karlos Calleja Prada (Gasteiz)
• Gorka Moreno Marquez (Zornotza)

ANDRA MARI

• Ramon Beloki Irastorza (Donostia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

argia 2011ko egutegia

Salgai
dagoeneko!



EGURREZKO
TAULA

50€

EGUTEGIA
opari

EGUTEGIA

8,50€



Pentsamendu txikien
egutegia

Hausnarketa labor ospetsuak
Jai egunak - egun seinatuak
Santuak - euskal izendegia
Eguzkia - ilargia - mareak

2011
argia

- Hausnarketa labor ospetsuak
- Jai egunak
- Egun seinatuak
- Santuak
- Euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak



BURNIZKO
EUSKARRIA

5€